

ELKARRIZKETA: MIKEL OLANO • ESPERIENTZIA: LITERATURA KLASIKOA
IKASLEEN ESKURA • IRRIAK OARSOALDEAN • GALDEIDAZUE: TXABI ARNAL
• PILOTARI IKUS GUNEA • ATZEKO ATETIK: ANTXINE MENDIZABAL

hh
hik hasi

169

4 EURO • 2012KO EKAINA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

**Euskal Herriko hezkuntzaren
historiarako dokumentazio-gunea**

LEHEN IRAKURLEAK



Castillo Suarez
Enrique Morente

KRISPETA HEGALARIAK

Ipuin honetako neskak oporrak maite ditu eskolarik ez dagoelako, eta amonaren etxean egoten delako...

LEHEN IRAKURLEAK

Joxean Urbietta
Igor Ramos

TORI ZAHARRA EKARRI BERRIA

Gurasoen autoko atea ixteko denborarik hartu gabe, aiton-amonen baserrira abiatu da Mattin...



23

BIZI LITERATURA

8URTE



Xabier Mendiguren
Inaki G. Holgado

KULEROZAHAR

Naroak, Lutzik eta Peruk ezin dute aguantatu ingelesko irakasle berria: sorgin galanta da andereño Kulerozahar...

8URTE



Uxue Alberdi
Eider Eibar

MARIZIKINA NAIZ ETA ZER?

Aneri Marizikin esaten dio beti amak: arrautza-gorringoa erori zaiolako soinekoan, edo tomate-saltsa, edo beste edozer gauza...

elkar

www.elkarargitaletxea.com

aurkibidea



8
gaia

HEZKUNTZAREN ONDARE HISTORIKOA

Gunea Donostian dago, EHUK Gipuzkoako Campusean ireki berri duen Carlos Santamaria Zentroan.

Ez da, ordea, hezkuntzarekin hertsiki lotuta dagoen ondare hori guztia jendarteratzeko eta ezagutarazteko GARAIAN taldeak abian jarri duen ekimen bakarra; espazio fisiko horretaz gain, atari digitala antolatu du sarean ere.



16
elkarrizketa

MIKEL OLANO

27 eskola txiki daude gaur egun Gipuzkoan, eta hilabete honen hasieran euren 25. festa ospatu dute Larraulen. Data biribila ospatzeko, haatik, festaz gain hainbat ekitaldi egin dituzte.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZAREN HISTORIARAKO DOKUMENTAZIO-GUNEA

16 elkarrizketa

MIKEL OLANO. Gipuzkoako Eskola Txikietako lehendakaria

24 esperientziak

Literatura klasikoa ikasleen eskura

28 esperientziak

Irrien Lagunak Oarsoaldean

30 galdeidazue

Zergatik hitz egin behar diogu heriotzaz haurrari? Nola lagunduko digu haur-literaturak?

Txabi Arnal

35 berriak

36 nora joango gara?

Pilotari ikus gunea

38 Atzeko atetik

Antxine Mendizabal. Editorea

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Euskal Herriko hezkuntzaren historiarako dokumentazio-gunea. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-05-24). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

ETXERAKO HEZIKETA ALDIZKARIA 1. ZENBAKIA

Hazi Hezi

Urteko lau aldizkarien harpidetzak 20 euro balio du.

hik hasiko harpidedunentzat 15 euro.

Lehenengo zenbakia doan bidaliko zaie orain harpidetzen direnei.

www.hikhasi.com

GAIA:

"Nola erdituko naiz?"

ELKARRIZKETA: LAURA GUTMAN

"Ama izatean, mundua desarmatu egiten zaigu"

SORMENA

Mursegorekin elkarrizketa

editoriala ekaina

Hezkuntzak garrantzitsua dirudi Frantziako Estatuan



Kanpainako ardatz nagusia izan ondoren, hezkuntzan egin beharreko aldaketak adostu nahi dituzte eragileekin. Jules Ferryren itzal luzeak eragin du hainbaten artean.

Gobernu berria du Frantziako Estatuak. François Hollande presidente berriak izendatu du Hezkuntza ministroa, Vicent Peillon.

Deigarria izan da presidente berriaren hauteskunde-kanpainak, nagusiki, bi ardatz izatea: hezkuntza eta gazteria, hain zuzen. Eta boterea iritsi orduko, kanpainako programan iragarri bezala, hasi dira aldaketak hezkuntza arloan. Zenbait indarrean dira dagoeneko; aurreko gobernuak hartutakoak eta hezkuntza-komunitateak begi onez ikusi ez zituenak, batzuk. Beste hainbat gai, mahai-gainean jartzeko prest azaldu dira: eskola-erritmoak eta eskola-egutegia, besteak beste.

Aldaketa horiek egiteko, ordea, adostasun-aldi bat zabalduko dute, guraso elkarte eta sindikatuarekin. Aldaketen helburu behinenak dira, ikasleen emaitzen batez bestekoa hobetzea, eskola porrota gutxitzea eta ikasleen arteko desberdintasunak leuntzea. Antza, hezkuntza eragileekin adostu nahi dituzte. Peillon lehena jarri, beraz, in-

teresgarria izan da, hezkuntza-komunitatea kezkatzen duten hainbat gai eragileekin eztabaidatzeko borondatea agertu baitu.

Hala ere, orain arte Frantziako hezkuntza agintariek egin dituzten adierazpenetan behin eta berriro aipatu dute Jules Ferry eta harek sortutako eskola. Ferryren itzalak bat baino gehiago ohartazi du. Izan ere, hura izan zen XIX. mendearen amaieran Frantziako Estatuan “eskola publikoa, laikoa, doakoa eta derrigorrezkoa” indarrean jarri zutena, “iraultzen aroa ixteko”. Orduetik, mito bihurtu da, balio eztabaidagarrien gainean finkatu zituen ikuspegi ezker-tiar batetik begiratuta eskolak izan behar dituen ezaugarri horiek.

Lapurdiko, Nafarroa Behereako eta Zuberoako eskolek, Frantziako Estatu-tik datorrien aire argi-ilun horiei hezkuntza-agintariek euskarazko hezkuntzari izango dioten begirunearen gaineko kezka gehitu diote. Ikustear da, beraz, lehen begiratuan interesgarriak diruditen urrats horiek zein ondo-

rio izango dituzten.

Gainerako herrialdeak, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Nafarroak, Espainiako Estatu-tik datorren murrizketa-zaparradaren pean jarraitzen dute. Hango ministroak ere argi azaldu du zein den bere jardunaren helburu behinena: lehenik murrizketak egin eta gero erreformak.

Leku eta egoera guztietatik izaten omen da zer ikasia. Murrizketen harira, hezkuntza publikoaren izatea mahai-gainera datorrela dirudi. Ferry aipatu denez, harek ere eskola publikoa, laikoa, doakoa eta derrigorrezkoa aldarrikatu eta ezarri zuela gogoratu behar. Hitz ederrak, eta batez ere bidezkoa izango den jendarte batek defendatu beharrekoak, dudarik gabe. Baina zer esanahi izango du hitz horretako bakoitzak eraiki behar dugun, jada eraikitzen ari garen Euskal Herria kon-tuan izango duen Hezkuntza-Sistema? Eztabaida interesgarria, egin beharrekoa, hitzen esanahi labankorreen berririo gal ez gaitzen!

kronika

Nafarroako 0-3 urteko hezkuntza-zikloaren gaineko Lege-dekretua zalantzan jarri eta hezkuntza komunitatearen artean gai horren gaineko eztabaidarako tarte zabaltzeko eskatu diote 15.000 lagunek beren sinadurekin Nafarroako Gobernuko Iribas kontseilariari. Era berean, inposaketaren bidetik ezarri nahi duen erreforma errefusatu dute. Kontseilariak, ordea, muzin egin die aurketu zaizkion eskaerei. Bestalde, landa eremuko eskolak babesteko eskatuko diete Nafar parlamentuari. Azken urteetan zenbait itxi ondoren, gaur egun 75 daude, asko arriskuan. Artean, 50 inguru udalek onartu dute landa eremuko eskolen aldeko mozioa. “Landa eskolak ez dira errentagarriak, baina argi dago ezin dugula ekonomiaren arabera erabaki” adierazi dute ekimena sustatu duten landa eskoletako hainbat gurasok. Jardunaldiak egin zituzten zentro horien lanaz eta egoeraz.



Lehenik murrizketak erreformak ondoren

“Presazkoa dirua aurreztea da orain; gero etorriko da garrantzitsuenak, erreformak egitea”. Jose Ignacio Wert Espainiako Estatuko Hezkuntza ministroak esandako hitzak dira.

Horretarako, irakasleei lan-orduak gehitu dizkiete eta ikasle gehiago pilatu dituzte taldeko, maisu-maistrak kanporatzeko. Guztia, dirua aurrezteko helburu hutsarekin.

Uda ondoren hasiko dira, berriaz, erreformak egiten hezkuntzan. Erreforma horien asmoa, ikasleen arteko aldeak Lehen Hezkuntzatik bertatik hasia da: horretarako, ikasleen eskola-espeditentia izango da erabiliko duten irizpidea, soilik. Era horretan, zaildu egingo dute DBHko titulua lortzea. DBHri urte bat kenduko diote. Erreformen xede bakarra, Goi-mailako ikasketetan jende gutxiago egotea da.

Erantzuna Iruñetik eta Gasteiztik

Eusko Jaurlaritzako lehendakariak hitzeman zuen ez duela murrizketarik egingo. Ondoren, Hezkuntza sailak Madrilgo murrizketek eskumenak urratu dituztela salatu zuen, eta haien aurkako helegitea aurkeztu zuen. Helegiteak bi punturen aurka jo du: irakasleen eskola-orduen igoera eta ordezkapenen gutxitzea.

Nafarroako Hezkuntza kontseilariak, bere aldetik, adierazi du ez dituztela bere egingo Madrilek proposatutako neurri guztiak. Hala ere, bi ikasle gehiago jarriko dituzte gelako eta irakasleek eskola-ordu gehiago eman beharko dituzte.

Egoera larriaren aurrean

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan LAB, ELA eta EILAS sindikatuek greba deialdia egin zuten maiatzaren 31rako. Azken bi sindikatuek, ordea, bertan behera utzi zuten deialdia, sindikatu guztiek bat egiten duten arren egoeraren analisian.

Nafarroako irakasleek, bere aldetik, batasuna eskatu diete sindikatuei. Denek greba deitu zuten maiatzaren 22, 29 eta 31rako. BHko irakasleek greba mugagabea hasi zuten, eta Ikasle Abertzaleek Ikasle Altxamendua presatatu dute. Gainera, manifestazioak egin zituzten gurasoek eta ikasleek.

"Gure idazle, zinemagile, bertsolari eta bestelako sortzaileetan inbertitu behar da, masiboki, euskara atsegin egiteko, astialdia euskalduntzeko".

Pedro Miguel Etxenike



Hezkuntza gaia aztergai Frantziako Estatuan

Hilabete honetan egin dituzte hauteskundeak Frantziako Estatuan. PSF alderdiko François Hollande izango da errepublikako presidente.

Hollandek dagoeneko izendatu du Hezkuntza ministroa: Vicent Peillon. Eta honek osatu du bere taldea, hezkuntza sistema barru-barrutik ongi ezagutzen duten kideak, hain zuzen.

Antza, haren izendapena nahikoa ongi ikusia izan da, hautes-kanpainan zehar hezkuntza gaiez arduratu baita eta, horretaz gain, ongi ezagutzen baitu langintza: zazpi urtez filosofia irakasle izan da.

Hollandek kanpainan adierazi zenez, Hezkuntza eta Gazteria bere legegaldiaren bi lehentasunak izango dira.

Izendapenarekin batera iritsi dira lehen aldaketak eta berrien iragarpenak.

Lehen aldaketak

Hauteskunde kanpainan hezkuntza-programak berebiziko garrantzia hartu zuen. Orain hartu dituen neurrien artean, aurreko gobernuak kaleratu zituen irakasle-laguntzaileak berriz kontratatzea dago.

Matematiketan, Frantsesean eta Atzerriko Hizkuntzan ikasleen batez besteko emaitzak hobetzea izango da Hezkuntza ministroaren buruhausteetako beste bat. Lan horretan, ordea, ez dituzte baliabideak soilik hobetuko: Peillonek mahai-gainean nahi ditu Lehen mailako ikasleen ordutegiak eta eskola-erritmoak. Hala, epealdi bat zaldutahi du guraso, sindikatu eta bestelako hezkuntza-eragileekin asteko eskola-egunak eta eguneko eskola-orduak aztertzeke.

Kontuan izan behar da azken urte hauetan Lehen Mailako ikasleek eskola askotan 4 eskola-eguneko astea egiten zutela, jai izaten zutela asteazkenetan. Bestalde, gero eta eskola-eskakizun handiagoek, informazio ugazteak, eta curriculum berriek eskola-ordutegia egokitzea eskatzen dutela iritzi diote. Proposamena ere egin dute: kontzentrazio handiena eskatzen duten arloak goizean lantzea eta arratsalderako uztea Soin-hezkuntza eta Arte-hezkuntza. Mahai-gainean dauden proposamenak dira: hezkuntza komunitateak, mementuz, begi onez begiratzen ditu.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 2.000 ikasletik gora bizikidetzaren bultzatzeko proiektuetan lanean ari dira jada. Hainbat erakunde eta eragilek sinatutako bizikidetzarako akordioaren helburua da hezkuntzan elkartasun ekintzak bultzatzea eta giza eskubideak errespetatzea. Sinatzaileen artean daude, besteak beste, Ikastolen Elkartea, Kristau Eskolak, EHIGE guraso elkarteak, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiru unibertsitateak.

Gogoratu, ikasturtea amaitu aurretik, hiru herrialde horietako ikastetxe guztiek Elkarbizitza Plan propioa izan behar dutela.

Aurrera begira, akordiora elkarte gehiago biltzea espero du Hezkuntza sailburuak. Batu diren azken lauak, Sarean, BIHE,

Unesco Etxea eta Gernika Gogoratuz izan dira eta pozik agertu zen hori ikusita. Haren arabera, hezkuntza egoki ari da aurrera egiten, "Euskal hezkuntza gizarteak eskatzen duen neurrietara ongi egokituta dago eta, nire ustez, bide onean goaz". Zalantza gutxi ditu akordioaren ibilbideaz: "Bizikidetzarako akordioak "etorkizun oparoa dauka".

GAIA

Euskal Herriko hezkuntzaren historiarako dokumentazio-gunea

Hezkuntzaren ondare historikoari zabaldutako atea





EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailak hezkuntzaren gaineko ikerketak egiten ditu. Sail horren bulegoetan, ikerketa horiek egiteko hamaika dokumentu, liburu, testigantza eta abar pilatu dira urte hauetan guztietan.

Dokumentazio hori Euskal Herriko hezkuntzaren historian interesa duen ororen esku jarri nahi zuten Hezkuntzarako Azterketa Historiko eta Konparatuertarako GARAIAN taldeak.

Gunea Donostian dago, Gipuzkoako Campusean ireki berri duten Carlos Santamaria Zentroan.

Ez da, ordea, hezkuntzarekin hertsiki lotuta dagoen ondare hori guztia jendarteratzeko eta ezagutarazteko GARAIAN taldeak abian jarri duen ekimen bakarra; espazio fisiko horretaz gain, beste espazio bat antolatu du sarean ere: Euskal Herriko Hezkuntzaren Historiarako Dokumentazio-Gunea-ren ataria, hain zuzen.

www.ehu.es/euskal-hezkuntza/euskara/

Gunea bizirik dago, eta orain arte bildutakoak eskaintzen ditu. Berorren helburua, ordea, Euskal Herriko eskola-ondarea bildu eta zabaltzea da. Horretarako, orain arte dutena osatu nahi dute. Egitasmoan parte hartu nahi dutenekin harremanetan jartzeko tresna ere bada web-orria.

Ikertzailearen bulegoan zegoena

Aktak, dokumentuak, ikasliburuak, ikasleen eta irakasleen koadernoak, agiriak, audio- eta irudi-grabazioak, liburu zaharrak eta berriak... Euskal Hezkuntzarekin lotura duten gisa horretako hamaika ale aurkitu, eskuratu, aztertu eta sailkatu dituzte EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko ikertzaileek.

80ko hamarkadan hasi ziren lan hori egiten, eta, orduetik, bulegoetan pilatzen joan dira hezkuntzaren ondarea osatzen duten dokumentu horiek guztiak.

Bilketa horren sustatzaile nagusia Hezkuntzaren Historiako Katedradun eta GARAIAN taldeko ikertzaile ezagun Pauli Davila izan zen. Unibertsitateko sail horretan burutu ziren proiektuetatik eta ikerketetatik jasotako dokumentazio guztia sailkatu zuen.

Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailaren bulegoetan pilatzen ari zen material horrek dokumentazio-bilduma zabala osatu du pixkana. Dokumentazio guztia antolatzeke, datu-base bat diseinatu eta ezarri zuten dokumentazio eta bibliografia horrekin. Datu-base horrek, hain zuzen, bildutako materialaren funtsak bilatzea eta berreskuratzea erraztu zuen.

Bilketa- eta ikerketa-lanarekin ba-

tera, kezka bat sortu zen ikertzaileen taldean: nola ezagutarazi hezkuntza ondarea eta, horrekin batera, ikertzaile taldeek eta unibertsitateak berak egiten dituzten lanak?

Ikerketak eta lanak jendarteratzeko beharra sortu zen, beraz: ikertzailearen bulegotik atera eta jendearen esku jartzekoa. Espazio bat sortzea izan zen bide horretan egin zuten lehen urratsa, interesa zuten guztiek bilduma eskuragarri izan zezaten. Dokumenturen bat ikusi nahi duenak ez du jada ikertzailearen bulegora joan behar; orain, ikerketa-zentro batera joan daiteke, dokumentazio-zentro batera. Zentro edo gune hori dagoeneko abian da Gipuzkoako Campusean, Carlos Santamaria Zentroan, hain zuzen.

Ondoren, sarean eskaini zen dokumentazio hori ezagutzeko aukera, web-orriaren bidez. Bai bata eta bai bestea Hezkuntzarako Azterketa Historiko eta Konparatuertarako GARAIAN taldeak koordinatzen ditu.

Bi espazioek dokumentazio kopuru esanguratsua biltzen dute. Eta, bertan, askotariko materialak aurki daitezke: etengabeko gaurkotze-lanak dituzten bibliografia-funtsak, argazkiak, legeria, ikasliburuak eta ikus-entzunezko hainbat material.



G

Hezkuntzaren historia

Denoi zabaldutako gunea

Dokumentazio-zentroan lanean topatu ditu *bik hasi*k Pauli Davila, Joxe Garmendia eta Luis Mari Naya irakasle eta ikertzaileak. GARAIAN taldeak Carlos Santamaria eraikinean bertan antolatu eta ikusgai jarri zuen “Eskola Koadernoak” erakusketa jasotzetik etorri berriak dira. Dokumentazio-zentroa zer den, zertan den eta aurrera begira zer asmo dituzten azaldu dute.

Euskal Herriko Hezkuntzaren Historiarako Dokumentazio Guneak hiru helburu argi ditu:

1. Euskal Herriko hezkuntzaren ondare historikoa osatzen duen dokumentazioa berreskuratzea eta zaintzea.

2. Ikerketa-lana erraztea, lehen mailako iturrien eta bestelako dokumentazio-materialaren bidez.

3. Euskal Herriko hezkuntzaren historiari buruzko dokumentazioa hezkuntza-sistemaren eta, oro har, herritar guztien esku jartzea.

Helburuei buruz hasi dira lehenik, eta helburua “hemen daukagun materiala jendeak ezagutzea eta erabiltzea” dela adierazi du Pauli Davilak. Jendeak nola erabil dezakeen ere azaldu du: “Era guztietako materialak ditugu, hainbat jatorritakoak. Web-orriaren bidez ezagutaraziko dugu materiala: norbait tesi bat egiten ari bada, edo beste era bateko lanen bat, web-orrian material horren berri izango du, eta, gunera etortzen bada, dokumentua bera ikusi ahal izango du. Informazioa eskaintzen dugu guk, baina, era berean, erreferentzia eskaintzen dugu, lehen mailako iturria lortzeko”.

Gunean dauden dokumentu gehienak sarean daudela azaldu du gero. Do-



kumentuak ez dituzte sarean osorik ipini: “Dokumentuen lehen orrialdeak soilik daude sarean, interesatuak ikusteko zein dokumentuz ari garen, eta non dauden esango diogu: gunean dauden, edo beste nonbait; eta azken kasu horretan, hemendik bideratuko ditugu dokumentua dagoen lekura”.

Gunearekin, ate bat zabaldu dute, Unibertsitateko Sail horrek hezkuntzaren ondarearen gainean osatu duen bilduma ikus dezan jendeak. “Bada jendea hainbat lan egiten ari dena, eta hona etorri, eta ikertzaile gisa hasten da. Haientzat, oso erraza da gure lan egiteko modua, eta ez du dokumentu baten bila handik hona ibili beharrik”, dio Davilak, guneko apalen artean gidari-lana egiten ari den bitartean.

Eta dagoeneko badira ate hori zeharkatu eta dokumentu horien artean murgildu diren lagunak. “Une hauetan, guregana hurbildu dira masterrak edo doktoregoak egiten ari diren lagun batzuk, zenbait institututako irakasleak, eta gure ikasleak”, dio Joxe Garmendiak. Gaur egun, guneak baditu erabiltzaileak, beraz. “Dugun ondarea osatu eta sozializatu nahi dugu”, gaineratu du

Garmendiak.

Bildu duten hezkuntza-ondarea Euskal Herri osokoa da: hau da, Arabako, Bizkaiko nahiz Gipuzkoako ondarea bildu dute, baina baita Nafarroakoa, Lapurdikoa, Nafarroa Beherekoa eta Zuberoakoa ere. Izan ere, herrialde guztietan dituzte harremanak eta kontaktuak: Bizkaiko ARAKA ikerketa-taldearekin eta beste hainbat unibertsitate-tako eta erakundetako taldeekin.

Dituzten harremanez dihardugula, arlo horretan egin duten saiakera aipatu du Davilak: “Saiatu gara, nolabait, gure taldea finkatzen eta, gero, gure unibertsitate barruko eta kanpoko harremanak egiten. Beste zentroekin eta erakundeekin ere harremanetan gaude, eta elkarlanean ari gara: Auñamendi Entziklopediako taldearekin eta Eusko Ikaskuntzarekin, besteak beste”. Harremanetan daude Euskal Herri-tik kanpoko unibertsitateekin eta ikerketa-taldeekin ere. Harreman horien emaitza dira martxoan Donostian egin ziren “Eskola Koadernoak” erakusketa eta jardunaldiak, Bilbon ARAKA taldeak antolatuta maiatzean egingo direnak.



Gunean jasotako dokumentazioa

DOKUMENTUAK

- Ikastetxe publikoei, erlijiosoei, ekimen pribatuko fundazioei zein ikastolei buruzko dokumentazioa.
- Probintzia-erakundeetako akten kopiak.
- Diputazioen arteko posta-trukea.
- Ikuskapenen eta irakasleen inguruko espedienteak.
- Hainbat erakunderen arteko posta-trukea.
- Institutuen eta eskolen memoriak.
- Euskal Unibertsitatearen sorrera.
- Hezkuntza- eta alfabetizazio-zentroen gaineko estatistika-serieak.
- Euskara irakasteko testuak, eta abar.
- Gerrako haurrak.
- Ikastetxeetako argazkiak.
- Ikasliburuak.
- Maisu-maistrei egindako elkarrizketak.

EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZAREN HISTORIARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA

MEDIATEKA

Bideoak, argazki propioak.

IKASLIBURUAK

Eskolako liburuak: zaharrak eta berriak.

IKERKETAK, TESIAK

Hezkuntzan aurkeztu diren tesi gehienak.



Euskal Herriko Hezkuntzaren Dokumentazio Gunea irekita dago nahi duenarentzat; unibertsitateko jendeari ez ezik, jende guztiari zabaltzen zaio. Interesa duenak, beraz, GARAIAN taldearekin harremanetan jarrita, aukera du gunean dutena ikusteko eta ikeritzeko.

Oraingoz, gunearen espazioa Carlos Santamaria Zentroan dago. Ikerketa-gunea egin dute, eta sarearen bidez jendarteratu dute. Aurrera begira, berriaz, hauxe dio Davilak, esku artean aspaldiko ikasliburu zahar bat erakusten digun bitartean: “Denborarekin, egozia litzateke espazio bat antolatzea, dugun ondarea bistartzeko; beste gune bat, zabalagoa, non erakusketa bat egongo litzatekeen”.



Hezkuntzaren historia

Web-orria gunearen erakusleiho

www.ebu.es/euskal-bezkuntza/euskara/ webgunean da Hezkuntzarako Azterketa Historiko eta Konparatuetarako GARAIAN taldeak hainbat urtetan bildu duen hezkuntza-ondarea jendarteratzeko bigarren tresna.

Webgunean ikusgai dauden edukiak Carlos Santamaria Zentroan dagoen guneak berak dituenak dira. Hala ere, lehen aipatu dugunez, webgunean dauden dokumentuak ez daude osorik, dokumentu bakoitzaren lagin bat eskaintzen da. Izan ere, atariaren helburua gunean bilduta daudenen erakusleiho izatea da. Beraz, jendarteratzeko bide garrantzitsua da webgunean. Horretaz gain, gunea kudeatzen duen GARAIAN taldeko kideekin harremanetan jartzeko bidea eskaintzen du, "iradokizunak" atalaren bidez. Atal horretan, informazioa eskatu eta eman daiteke, zentroa ikusteko eskaera egin daiteke, kontsultak egin daitezke, eta abar.

GARAIAN taldekoak harremanetan daude hainbat ikerketa-zentro eta artxiborekin, eta, horri esker, datu-base garrantzitsua osatzea lortu dute. Hitzar-menak egiten dituzte haiekin, "baina ez dira nahi bezain errazak eta bideragarriak".

Hauek dira datu-basera datozen jatorrizko artxiboetako batzuk: Euskal Herriko lurralde historikoetako eta herrietako artxiboak, Espainiako estatuko administrazioaren artxibo orokorrak, Valladolideko Unibertsitateko artxiboak, Espainiako Artxibo Historiko Nazionala, eta abar. Horiez gain, badira hainbat ikastetxetatik eta erakundetatik datozen funtsak ere: Bigarren Hez-

kuntzako institutuetatik, eskoletatik, arte- eta lanbide-eskoletatik, eskola pribatuetatik eta dohaintza pribatuetatik datozen funtsak, hain zuzen.

Memoria digital handi horrek hainbat datu-basetara sartzera ahalbidetzen du. Datu-baseotan, honako hauek kontsulta daitezke:

Dokumentuak

Dokumentuak dira, oraingoz, webgunean oinarriak. Atal horretan, lehen mailako iturrietatik datorren dokumentazioa dago; gaur egun, 3.000 dokumentu daude sailkatuta, horietako batzuk *pdf* euskarrian, eskannerretik pasatu ondoren. Dokumentazio-gunean, ordea, 5.000 dokumentutik gora dituzte oraindik, pixkanaka datu-basean ipiniko dituztenak.

Bibliografia

Euskal Herriko hezkuntzaren historiari buruzko bigarren erreferentzia osatzen dute. Dokumentazio-gunean, gaiarekin zerikusi zuzena duten 2.000 liburu eta artikulua baino gehiago dituzte.

Mediateka

Atal hori argazkiz eta bideoz osatuta dago. Euskal Herriko eskolen eta eskolako eszenen argazkiak daude ikusgai. Bideoz grabatutako ikasle ohien iritziak eta hitzak aurki daitezke, era berean. Atal hori, batik bat, Bihardugu Euskara Elkarteari esker hornitu dute; izan ere, elkarte horren egitasmoa den www.abotsak.com webgunean, hezkuntzari buruzko grabaketa ugari daude sailkatuta.

Ikasliburuak

Eskolan erabilitako euskarazko zein gaztelaniazko liburuak bildu dituzte. Gehienak XX. mendearen hasieratik gaur egunera artekoak dira.

Baliabideak

Atal horretan, berriz, hezkuntzaren historiarako interesgarriak izan daitezkeen hainbat webgunerekin egin daitezkeen loturak eskaintzen dira: estatistikak, ikastetxeak/unibertsitateak, liburutegiak/artxiboak eta Hezkuntzaren Historiarako Baliabideak.





Ikerketak guztiaren abiapuntu

Dokumentazio-gunearen eta web-orriaren gaineko xehetasunak erakutsi zizkieten *bik hasi* GARAIAN taldeko hiru ikertzaileek. Behin eta berriro adierazi zuten, bi bitarteko horiek oso zutabe garrantzitsuak dira egindako lana eta hezkuntza-ondarearen gainean bildutakoa ezagutarazteko.

Gunearen eta web-orriaren atzean, orde, aurretiazko lan mardula dago, bi ekimenen oinarri dena. Prozesu hori guztia ezagutzeko, ikertzaileen bulegoan eta lanean murgildu da *bik hasi*.

“Lehen-lehenik, ikerketa behar da. Ikerketaren gainean osatzen da, ondoren, taldea. Taldeak, ikerketa egin ondoren, aukera du horrelako gauzak egiteko. Beraz, orain arte ezagutu ditugunak, hots, gunea, ataria, erakusketa eta jardunaldiak, ez daude “ikerketaren barruan, ikerketaren emaitza dira”. Ikerketa bat egiteko, proiektua aurkeztu behar da: lan-metodologia prestatu behar da, dokumentuak nondik aterako dituzten azaldu behar da, eta abar.

Esate baterako, ikerketa-taldea osatu dute ARAKA Bizkaiko ikerketa-taldeak eta GARAIAN taldeak, ikerlan zehatz baterako. Bien artean egingo dute ikerketa, elkarlanean. GARAIANek web-orria eta dokumentazio-zentroa ditu. Ikerketa kudeatzeko osatzen da taldea, baina, ikerketarik egitea lortzen ez bada, taldeak ez du oinarririk.

Ikerketa egin ondoren, esparru akademikorako artikulua idatziko dituzte euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, hemengo eta sona handiko nazioarteko aldizkarietan. Horrela, jendeari

zabaltzen saiatuko dira. Izan ere, diru publikoarekin egiten dira ikerketa horiek. “Ezin dira gure etxean geratu, guretzako etekin gisa soilik; nolabait, itzuli egin behar diogu jendarteari”, dio Davilak. “Mundu indibidual honetan, gero eta gehiagotan gertatzen den gauza da: nik hartzen dut diru publikoa, eta niretzat erabiltzen dut; ez dut jendarteratzen. Nik uste dut zor bat badugula herriarekin, eta, ideia horretan sakonduz, urratsak egin behar ditugula”, gaineratu du Garmendiak.

Ikerketatik erakusketara

Adibide batekin argitu du abiapuntu ikerketa bat duen prozesua. Orain dela 4-5 bat urte, ikerketa bat egin zuten hezkuntza pribatuari buruz, “La Salle Gipuzkoan” izena zuena. Ikerketa sakona eta zabala izan zen. Lana argitaratu egin zuen taldeak liburu mardul batzuetan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kutxarekin eta La Sallerekin batera. Jendeak, beraz, eskura du ikerketa hori, eta, gainera, egindako lana nazioarteko hezkuntza-arloan izen handia duen aldizkari batean argitaratu dute; Gipuzkoa eta bertako La Salleko eskolen lana nazioarteko hezkuntza-komunitatean zabaldu da, era horretan.

Salletarrei buruz aipamen bat egin nahi izan du Garmendiak: “Salletarrek euskal hezkuntzan egin duten ekarpena handia izan da. Bruño argitaletxea sortzeaz gain, Errepublikara garaian euskaraz idatzitako liburu ugari argitaratu zituzten”.

Gaur egun, Espainiako estatuko

ministerioak lagundutako ikerketa bat daukagu: “Elizaren eta erakunde pribatuaren hezkuntza-ekimena frankismo garaian”. Orain, gai horien gaineko materiala biltzeko garaia da. Bilketa egiteko, Espainiako Estatuko Administrazioaren Artxibo Nagusira, Ikastolen Elkartera eta Valladolideko eta Salamancako artxibategietara joango dira. Han topatutako materiala eskanerretik pasatu, fotokopiatu eta, ondoren, sailkatu egingo dute. Sailkatzeak ematen omen die lan handiena: dokumentu bakoitza irakurri behar dute erreferentzia lortzeko, eta, gero, zein deskribatzaile jarri erabaki behar dute.

Sailkatu eta gero, karpeta batean gordeko dute dokumentazioa, eta Interneten esekiko dute. “Gainera, hori guztia euskaratu egin behar dugu”, dio Garmendiak, eta bitarteko gutxi dituztela eta ia lan militantea egiten dutela ere esan du.

Handik eta hemendik, liburu zaharren azoketan edota partikularren ekarpenetatik material ugari lortu omen dute. Eskuratutako bitxikerien artean, *Reglamento de la Asociación Altos Hornos de Vizcaya eta Organización Sindical Española* aipatu dituzte.

Era berean, Madrilen lehenengo ikastolei buruzko oso material polita lortu dutela adierazi dute. Izan ere, garai hartan, eskola bakoitzak txosten bat bidali behar zuen derrigorrean. Ikastolen Elkartearen ere lortu dute dokumentazioa. Aipatu behar da, gainera, taldea harremanetan dagoela zentro publikoekin, pribatuekin eta ikastolekin.

Hezkuntzaren historia

Hezkuntzaren bidez herria erakusten

Estatu Batuetan eta Ingalaterran, badira nazioarteko hedapena duten eta hezkuntzaren historiaz ari diren hainbat aldizkari, sona handikoak batzuk, *History of education*, esaterako. Aipatutako ikerketek, Euskal Herriko hezkuntzaren historiari buruzko informazioa irakur daiteke



aldizkari horietan. Berorietan, Europako eta munduko ikertzaile garrantzitsuenek argitaratzen dituzte beren lanak. "Lanean ari gara nazioartera begira. Europan, behintzat, badakite ikerketa horiek guztiak ez direla herriko gauzak soilik", esan du Davilak. Hemengo hezkuntza erakutsi nahi dute, Euskal Herrian eta munduan.

Horrek ospea ematen dio egindako ikerketari, eta, bide batez, Euskal Herria munduari erakusteko balio du.

Etorkizunari begira ari dira, batez ere, ikertzaileak. Eta begiratu horretan, hainbat erronka definitu dituzte:

Euskal Herriko hezkuntzaren historia eta hezkuntzaren etorkizuna landu eta jendarteratu.

Eztabaida eta ikerketarako gunea zabaldu.

Euskal Herriko ondarea kontuan izanik, erakusketak antolatu.

Bildu duten eta bilduko duten ondarea sailkatu eta jendearen eskura jarri.

Beste erakundeekin eta instituzioekin elkarlanean aritu.

Erakusketa, ondarea ikusgai egiteko

Bi urte dira "Hezkuntzaren Historia Euskal Herrian" izena zuen biltzarra antolatu zutela, Eusko Ikaskuntzarekin batera. Han aurkeztutako txostenekin, aldizkari bat argitaratu zuten, eta hori izan zen Euskal Herriaren hezkuntzaren historia zabaltzen hasteko abiapuntua. Duten materialarekin, ikerketa bat egiten saiatuko dira, erakusketa bat prestatzen, biltzar bat antolatzen, edota zabaltzeko baliagarria zaien beste ekimenen bat antolatzen.

Erakusketaren gaineko ideiak biltzen aritu dira, batean eta bestean. Iaz, esaterako, museo zuzen ibili ziren Murtzian, Salamancan, Katalunian, ondarea antolatzeko moduak eta dituzten material motak arakutzen.

Ondare historikoaren inguruan eratutako elkarte bat ezagutu zuten. Eta, orain, lanean hasi dira Espainiako estatuan eta Europan, eskola-ondare historikoaren arloan.

Eskola-koadernoak bilduta zituen Zamorako talde baten berri izan zuten, eta erakusketa hori Euskal Herrian egitera gonbidatu zuten. Bi helburu zituen gonbidapenak: alde batetik, material horren inguruan zer dagoen erakustea; eta, bestetik, hemengo materiala eskuratzeko ahalegintzea. "Erakusketa ikustera etorri den zenbait jendek esan digu etxean badituela halako koadernoak, bereak edo bere aurrekoenak, eta ekarriko dizkigula", adierazi du, pozik, Davilak.

"Eskolako Koadernoak" erakusketazabalik egon zen martxoan, Carlos Santamaria Zentroko areto batean.

Erakusketan ikusgai zeudenen artean, Zamorako Unibertsitateko museo-gune pedagogikoa, Zamorako hezkuntzako pertsonaia ezagunak, hainbat hezkuntza-lege eta Bigarren Errepublikako eta frankismo garaiko hezkuntza legeak, gelak eta eskolako koadernoak zeuden.

Garrantzi handikoak dira eskola-koadernoak. Izan ere, haietan idatzita daudenak oso baliotsuak dira, duela hamarkada gutxi arte haurren belau-naldiek ezagutu zituzten eskola-ereduak eta motak deszifratzeko eta interpretatzeko.

Koadernoak, beraz, oso baliagarriak dira, eskolako historia ikertzeko dokumentu-iturri gisa. Erakusketan ikus zitekeenez, aztertu dituzten arloak koadernoaren euskarria eta itxura, koadernoaren jabetza, edukia eta koaderno motak izan dira.

Haurren koadernoekin batera, irakasleenak eta eskolako koaderno ofizialak zeuden ikusgai.



Hezkuntza ibilbideen testigantzak

Irakasle bat erretiratzenean eta, beraz, eskolako atea betiko ixten duenean, zenbat bizipen eta eskarmentu uzten ote du? GARAIAN ikerketa-taldek ikertzaileen ustez, jakintza eta eskola eta, bide batez, jendartea eta mundua bizitzeko eta interpretatzeko ikuskera oso bat galtzen da betiko.

Zamorako museo-gunean, erretiratutako irakasleek beren bizitza profesionaleko testigantza idazten dute koaderno batean. Koaderno hori “Bizitzako historiak” izeneko artxiboan biltzen dute.

Jakintza eta testigantza horien galera saihesteko, ekimen bat ipiniko dute abian heldu den ikasturtean, EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia sailean. Erretiratutako irakasle euskaldunen testigantzak bilduko dituzte beren ikasleen bidez, horretarako propio egin dituzten koadernoetan.



Hezkuntza komunitateari deia

Dei egin nahi diote hezkuntza-komunitateari eta jendarteari, oro har, *bik basiko* orrialdeen bidez.

Eskoletan eta etxeetan zokoratuta dauden koadernoek, ikasliburuek, agiriek, argazkiek, grabazioek eta abarrek historia kontatzeko eta garai baten lekukotasuna emateko duten balioaz jabetzea, eta bota aurretik hezkuntza-ondarearen bilketaz arduratzen dentalde-

ren batekin harremanetan jartzea da helburua.

Euskal Herriko hezkuntza-ondarea biltzea, sailkatzea eta denon eskura jartzea da asmoa. Garrantzitsua da gure historia hezkuntzaren historiaren bidez idaztea. Gustura hartuko dituzte jendearen iradokizunak, informazioak edo materialak. Horretarako, nahikoa da www.ehu.es/euskal-hezkuntza/euskara/ webguneko iradokizunak atalean ohar bat idaztea, edo saileko (34) 943 018263-943 018264 telefonora deitzea.

mikel olano

ELKARRIZKETA

Gipuzkoako Eskola Txikietako Koordinakundeko lehendakaria

“Irakasleek, gurasook eta udalek osaturiko elkarlan markoa ideala da hezkuntzarako eta herri proiekturako”



“Unibertsitate mailako formazioa eta prestakuntza faltan botatzen dugu bai. Eskola txikia bera, adin aniztasuna, proiektu lan egitea... irakasleek horrelako gauza asko ez dituzte unibertsitatean entzun ere egin.”

Mikel Olano Gipuzkoako Eskola Txikietako Koordinakundeko lehendakaria Altzok eskolan hartu du *hik hasi* aldizkaria. Eskola ederra da Altzokoa, berria, eta tamaina ederrekoa. Baina berehala argitu du, “hau ez da eskola txikien errealitatea, hau helburua da, eta salbuespena”. Azpiegitura aldetik egoera okerragoan ei daude Gipuzkoako eskola txiki asko eta asko, eta horien egoera hobetzea da Koordinakundearen lanetako bat, eta helburu nagusia eskola txiki bat bera ere ez dezatela itxi.

27 eskola txiki daude gaur egun Gipuzkoan, eta hilabete honen hasieran euren 25. festa ospatu dute Larraulen. Data biribila ospatzeko, haatik, festaz gain hainbat ekitaldi egin dituzte, otsailean Andatzako eskola txikiari laguntzeko egindako ekitaldiekin hasi eta datozen hilabeetan ere jarraituko dutenak, eskola txikien azken 25 urteotako ibilbidea, gaur egungo egoera eta geroko erronkak jasotzen eta azaltzen dituen dokumentala egin baitute, eta berau zabalduko baitute nonahi.



25 urte daramatzazue festan, 25 urte aldarrikatzen. Lehenengo festa hartan “eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik” erreibindikatu zenuten, oraindik ere aldarrikapen hori bera egin behar da?

Bai, hori da, aldarrikapena ez da aldatu. Orduan ere oso garbi ikusten zuten zein zen helburua: eskola txikiak bizirik nahi ditugu, eskola biziak eta herri biziak nahi ditugu; eta, gaur egun ere, horixe bera da helburua, bete-betean. Horregatik, aldarrikapen hori, oraindik ere, beharrezkoa da gaur egun, dudarik gabe.

Gipuzkoa mailan, mugimendua gorpuztua dago, baina zaila da mantentzea. Honaino iritsi, eta eutsi egin behar diogu daukagun honi. Baina ez hori bakarrik, ahal baldin bada, hazi egin behar dugu. Momentu honetan 27 eskola txiki daude, baina Gipuzkoan herri asko daude oraindik harago, eskola horren desioa daukatenak. Eta hori da beste helburua, eskola txikia nahi duten herri horiei laguntzea. Baina momentu honetako gure erronka nagusia da daudenei eustea, ez dezatela bat bera ere itxi.

Ez dago eskola txikien definizio zehatzik, baina, ze ezaugarri dituzte?

Ezaugarri adierazgarriena gela baten barruan adin aniztasuna egotea da; gela berean lehenengo eta bigarren mailakoak, adibidez, batera daude, edo hirugarren eta laugarrenok... bi urtetako ikasleak nahastuta egotea da ezaugarri nagusietako bat. Eta hori, azken batean, hezkuntzan eta pedagogian metodo bat da.

Horrez gain, eskola txikiak herri txikietan kokaturik egoten dira; nekazal

kutsu nabarmena duten herrietan, eta euskararekin harreman estua daukate netan. Horrez gain, teoriarik, sei gela baino gehiago ez ditu eduki behar eskola horrek.

Eskola txikietan hezkuntzako metodologia bat aplikatzen da, eta horretarako, herri hauetako irasleek formazio berezia jasotzen dute metodologia ezagutu dezaten eta proiektu bidez lana egiten dezaten.

Nekazal giroa, euskara, herri txikiak... herriaren ezaugarriak eskola txikien ezaugarri bihurtzen dira, beraz?

Irakasleek proiektu bidez lantzen dituzte ezaugarri horiek, herriaren izaera kontuan baitaude proiektuek, nekazal eta euskal kutsua daukate proiektuek. Irakasleekin jorratzen dira proiektuak baina herritarrek ere parte hartzen dute, adibidez, aitona-amonak eskolara etorri eta beren bizipenak kontatzen dituzte; baratzeko proiektu bat dago, baita ere...

Adin aniztasuna, adibidez, muga ez eta eskola txikietan aukera bezala erabiltzen duzue, metodologia pedagogiko gisa. Guraso bezala, ze aberastasun ikusten dizkiozue gela barneko adin aniztasunari?

Gurasoen artean denetarik dago. Hasiera batean, askok ez dute ulertzen gela berean adin desberdinetako haurrek egotea, eta ikasle batzuek besteei erakusten aritzea; eta kosta egiten da ulertzea zergatik norberaren umeak irakatsi behar dion beste bati, guraso batek pentsa lezake ez ote lukeen bere umeak hobe andereñoarekin gehiago aurreratzea? Hor talka bat sortzen da, errezeloak eta galdera asko sortzen zaizkie gurasoei, ezegona eta kezka handia. Daukagun hezkuntza tradizioak esaten du urte bakoitzeko umeek gela batean egon behar dutela, eta haiekin irakasle bat egon behar dela, eta hark azaldu behar dizkiela gaiak.

Eskola txikietan gauzak nola diren oso ondo azaldu behar zaizkie gurasoei, errezelo horiek gairitu eta kezkak argitzeko. Gu konbentzita gaude es-

kola txikietan erabiltzen den metodologiaekin, hobeto ikasten dela azaldu digute, eta orain, guraso bezala, iritzi formatu bat daukagu horri buruz. Irakasleek eta jardunaldietara etorri diren aditu eta pedagogoei azaldu izan digute metodologia hau ikasteko era berezi bat dela. Ume txikiak handiagoa erreferente bezala hartzen du, eta esaten digute irakasleari baino gogo gehiagorekin egiten diola kasu. Aldiz, zaharagoaren kasuan, dakien zerbait txikiagoari azaldu behar dio, eta dakien hori erreferentzarako era bat da beste lagun txiki bati azaltzea; eragiketa hori egiteko garaian berari sendotua gelditzen zaio ikasi duen hori, ulermena erabatekoa izan behar du besteari hori azaltzeko. Adituek esaten digute hezkuntzan hori harribitxi bat dela.

Azkenik, badira gurasoak metodologia eta sozializazio-modu horrexegatik euren umeak eskola txikietara eramaten dituztenak.

Metodologia horren bidez, ikasle guztiak pasako dira, txikiak izatetik handienak izatera, eta denek rol guztiak jokatu dituzte, etxean ez bezala.

Urte batean azalpena jasotzen ariko da ume bat, eta hurrengo urtean ume horri egokituko zaio txikiago bati gauzak azaltzea, eta erreferente izatea. Ikusten denez, hori oso funtzionala da. Eta emaitzak ikusten ditugu, gainera. Gure umeak bigarren ziklo bat egitera joaten direnean, hor daukagu neurgailua. Adibidez, Altzoko umeak Alegira joango dira, beste batzuk beste herri batzuetara, eta hor ikusiko bagenu gure umeak atzeraturik sartzen direla... baina, orain arte ikusten dugu ondo doazela umeak, orduan, aurrera.

Eskola txikietako pedagogia-eredu hau eskola handietan ere aproposa izan liteke?

Jardunaldi batzuk izan berri ditugu, eta Kataluniako landa-eremuetako irakasleak etorri dira, eta haiek esaten dute gure ereduak luxu bat dela hezkuntzaren kalitate aldetik. Katalunian hortaz konturatu dira, eta eskola txikiak ere-



dua eskola handiagoetara eraman nahi dute. Baina horretarako, lehenik eta behin, mentalitatea aldatu egin behar litzateke. Katalunian, adibidez, unibertsitatean ere irakasle izateko formazio berezi bat daukate eskola zehatz hauetarako. Hemen irakasleen formazio hori faltan botatzen dugu.

Eskola txikietan lana egiteko irakasleek formazio berezia jaso beharko lukete?

Unibertsitate mailako formazioa eta prestakuntza faltan botatzen dugu, bai. Eskola txikia bera, adin aniztasuna, proiektuak lan egitea... irakasleek horrelako gauza asko ez dituzte unibertsitatean entzun ere egin. Hona irakasle berri bat etortzen denean, bertako irakasleek murgilarazi behar dute metodologia berria, eta irakasle hori ez badago oso konbentzita ez da sartuko eta ahal duen denbora motzenez alde egingo du. Gogo berezia eta inplikazioa eskatzen zaizkio eskola txikiak etortzen den irakasleari, plus bat, herriko proiektu horrekin identifikatzeko eskatzen baitaio. Bera unibertsitateetik etortzen da eta eskola txikian ikusten du gauzak ez dutela han ikasi bezala funtzionatzen. Batzuek ahal duten denbora gutxien ematen dute; beste batzuk, berriz, hau dela bidea ikusi eta murgildu eta hemen sartzen dira. Formazioa falta zaie irakasleei, behin hemen daudenean, eskola txikiak iritsi direnean, orduan hasten dira formazioa jasotzen eta mintegietara joaten.

Eskola txikiak irakasleei plus bat eskatzen dietela esan duzu, gurasoei ere bai?

Eskola txikiak alde guztiei eskatzen diete plus bat. Herri proiektu bat da, eta hor hiru hanka daude: batetik, guraso-

“ Eskola txikietan gauzak nola diren oso ondo azaldu behar zaizkie gurasoei, errezeroak gainditu eta kezkak argitzeko. Gu konbentzitura gaude eskola txikietan erabiltzen den metodologiarekin.

”

ak noski; bestetik, irakasleak eta hiru-garrenik, udala. Herrietako proiektu hauek aurrera joan daitezten nahi badugu, bertan dabilen jendea jende konprometitua izan behar da, ondo funtzionatuko badu. Irakasleak ere askotan pixka bat gehiago eman beharra izaten du. Gurasoak ere sinetsi egin behar du proiektu honetan, elkarlan bat beharrezkoa baita guraso, irakasle eta udalaren artean.

Zein da udalaren papera eskola txikietan?

Udalaren papera funtsezkoa da. Udalak ere plus bat jarri beharra dauka, ze eskola txiki hauetan hezkuntzatik kanpokoak diren mila arazo sortzen dira, mantenimendua, gela falta... Gabezia horiei aurre egiteko, udalaren papera funtsezkoa da, eta bere egin behar du eskola-proiektu hau, inplikatu egin behar da udala eskolan, herri proiektu bat baita. Hiru hanka horiek —guraso, irakasle eta udala— herri txiki bateko eskola ondo joan dadin nahi badute, ezinbestekoa dute hiru hanken arteko elkarlana, baina elkarlan erreala, gogoarekin.

Hiru agente horien arteko interakzioa funtsezkoa da, ezta?

Hori oinarrizkoa da. Gurasoak geure aldetik joaten bagara, adibidez, frikzioak sortzen dira irakasleekiko; Udala ere ez badago erabakiak hartzeko lanmahaian, gero errezeroak sortzen dira. Helburua da eskola dagoen herri bakoitzean hiru hanka horiek funtzionatzea, eta ez da erraza. Gauza bat da gogoia edukitzea, baina jakin egin behar da, baita ere, mugak errespetatzen. Batetik bestearen esparruak ez gaintitzea oso inportantea da. Hor joko arauak daude, lana eta elkarlana egin behar dira, baina, beti ere parametro batzuen barruan. Eta ez da erraza.

Eskola txiki hauek, batik bat, eskaintzen dutena hurbiltasuna da, gertutasuna eta konfiantza. Baina hurbiltasuna eta konfiantza hori kudeatzen jakin egin behar da, ze askotan eramaten gaitu gaizkiulertuetara eta haserreeta-

ra, eta hori ekidin egin behar da. Talde bakoitzak jakin behar du elkarlana egiten errespetatuz, formak gordez.

Beste muturrera ere ez dugu joan behar orain, gaizkiulertuak egon ez daitezten ezertan sartzea ere ez da bidea. Konfiantza hori gehienez oso positiboa da, baina ez baldin bada ondo kudeatzen, arazoak etor litezke.

Beharrak eraman zaituztete adin aniztasuna bultzatzera geletan, eta emaitza onak dituen pedagogia-eredu batera; eta beharrak, baita ere, irakasleek, gurasoek eta udalek elkarrekin lana egitera. Premiak muga ez eta aukera bezala planteatzen dituzuela dirudi.

Hala da. Ikasi dugu zer markotan mugitu behar dugun, irakasle, guraso eta udalaren arteko elkarlana bultzatuko duen eredua da markoa, eta horren barruan nahi duzun guztia eztabaidatuko dugu, baina marko hori ez dugu zailantzan jartzen, eta ez gara hortik ateratzen, badakigulako daukagun ereduak emaitza onak ematen dituen. Elkarlana marko horren barruan egin behar dugu, ze egia da, hori ideala da. Ez bakarrik hezkuntzarako, baizik eta herri proiekturako.

Proiektu pedagogikoa da, baina zeuk aipatu duzu, eskola txikiena herri proiektua ere badela.

Ume horiek txiki-txikitatik erroak hemen botatzen ari dira, eta hainbat ekintza sortzen ditu horrek herrian, koadrilak egiten dituzte, ekintzak eskolaren bueltan eta herrian bertan egiten dituzte. Ume horiek erabat herriri lotuak daude. Pentsa ekintza horiek guztiak, kirola... beste nonbait egingo balituzkete, herri hori zer izango litzateke? Hutsa.

Bizia ematen dio eskolak herriari, hori nabarmena da. Hala ikusi dugu guk hemen Altzon, eskolarik ez zegoenetik gaur egunera. Umeak eskolatik ateratzen direnean herrian bertan daude, proiektu bidez egiten dituzten ekintzak herri mailan egiten dituzte, asteburuan, eskolari lotutako ekintzak

–pilota...-herrian egiten dituzte. 12 urerekin joango dira Alegira, eta ordurako, hemen bota dituzte erroak. Inbertsio bat da eskola herriarentzat.

Guk eskola ikaragarria daukagu, baina hau salbuespena da, gehienetan oso baldintza kaxkarretan daude eskolak, edo txikiak gelditu zaizkie... kasu horietan udalak lagundu egin behar du, ze ulertzen da inbertsio bat egiten ari dela, ez da eskatu zaiona besterik gabe ematen duela, ez da giru, inbertsio bategiten ari dela ulertzen du, hori da filosofia. Inbertitzen ari da ze eskola horretara doazen umeak herritarrak izango dira. Hori da herri txikien etorkizuna. Beti erabiltzen ditugu betiko esaera ponposo horiek, “eskola bizia, herri bizia”, eta horrelakoak, baina egia da! Ez dira kliseak! Herri honi orain eskola kenduko bazen, paralisi totala izango litzateke herriarentzat. Geroari begira, eskola herrian edukitzea oinarritzailea da.

Eskola txikien aldeko aldarrikapena, azken batean, herri txikien aldeko aldarrikapena ere bada. Badirudi globalizazio garai hauetan handitzea dela helburua, denok bizi behar dugula hirian... baina zuek besterik aldarrikatzen duzue.

Orain arteko eredu hau, herri txiki hauek bizi daitezkeen aldarrikapena. Donostiatik hasi eta Eskoriatzaraino dena batu eta herri handi bat izan behar omen du denak... bada, hori nahi duenarentzako, nik ez dut eredu horretan sinesten. Nik nire herri txikian sinesten dut, eta nahi dut nire herri txikia mantentzea herri txiki bezala. Eta horretarako behar dut eskola.

Lehen komentatu dugu ea eskola txikien proiektu pedagogikoak balio ote duen eskola handiagoetarako, eta orain, eskola txikien eta herriaren arteko atxikimendu eredu honetatik zer ikas lezakete eskola handiagoek?

Gauza asko. Eredu hau, nire ustez, oso oinarritzailea da. Nik entzuten dudanean ez dakit nongo umeek ez dakitela oilaskoa nolakoa den, imajinatzen du-

tela oilaskoa harategian saltzen duten bezala, edo esnea poltsatik etortzen dela... bai, bai, agian matematiketan oso onak izango dira, baina garen gauzeekin, gure lurrarekin, gure historiarekin... ez baldin badaukagu lotura bat, ume horiek ez dute errorik izango, ume horiek mundu birtual batean biziko dira. Hemen, hasteko, kokatu egiten dira, eta hori oso inportantea da. Non gaude, nondik gatoz? Umeak kokatu egiten dira, eta ingurua interpretatzen ikasten dute. Hemengo umeek ezagutzen dituzte haritza, pagoa... hegan ikusten dute eta badakite zapelaitza dela. Eta gainera, matematiketan oso ondo joan daitezke, bata ez du bestea kentzean. Eskola txikiko umeak lurrarekin lotura dauka, eta bere ingurua interpretatzeko gai da.

Zer gertatzen ari zaigu ditxosozko krisi honekin? Agian eredu guztia aldatu behar dugu, eta horretarako inportantea da txiki-txikitatik hasia. Eta horrek ez du esan nahi matematikaririk ikasi behar ez dutenik, berdin-berdin ikasi behar dute, eta kimika ere bai, eta bestea eta bestea... Baina herriari lotua egoteak osagarri oso inportantea ematen dio umeari, eta hori herri handiagotetan egitea ere oso inportantea izango litzateke.

Gurasoen inplikazioa eskola txikietan ezinbestekoa dela esan duzu. Zuek koordinakundeak bilduta zaudete Gipuzkoan, baina herrialde bakarra zarete.

Koordinakundeak sortu zen ezaugarri berdineko herri asko geundelako, eta guztion arteko elkarlanak babesa emango zigulako, eta gauzak bideratzeko, eta arazoak dituen herri horri, nahi badu behintzat, laguntza emateko. Babesa sentitzen da ondoan zure antzeko eskola txikiak dituzunean. Bestela, bakarrik sentitzen da bat. Delegaritzak eskola txiki bat itxi nahiko balu, adibidez, koordinakundeak burubelari lagundu beharko luke, ahalegin guztiak egin behar ditu hori gerta ez dadin. Baina, lehenik eta behin, oinarriak funtzionatu behar du eskola bakoitze-



an; arazoen aurrean tokian tokiko guraso, irakasle eta udalak emango diote soluzioa, eta koordinakundeak dago laguntzeko, edo aholkuak emateko, edo babesa emateko.

Irakasleek ere koordinatzaile bat daukate, eta harekin harremanak edukitzeko, edo Hezkuntza Sailarekin, edo Udalen elkartarekin hitz egiteko ere, koordinakundeak edukitzea beharrezkoa da.

Hemen [Gipuzkoan] beste herrialdeetan ez dagoen inplikazioa dago. Bizkaian sortu nahi dute koordinakundeak, baina ez dute hain argi ikusten kontua. Araban harik eta dispartsoa da egoera. Nafarroan landa eremuko eskolek badute indarra, baina ez daukate Gipuzkoakoek duten estatusa.

Duela urte batzuk hartu zenuten Araba, Bizkaia eta Nafarroako eskola txikien arteko elkarlanerako konpromisoa. Zertan da?

Bai, hartu genuen elkarlanerako konpromisoa, eta erlazioak badauzkagu. Helburua nagusietako bat delegaritzaren aurrean eskola txikiak figura bereizi bat hartzea da. Nafarroan badute landa-eremuko eskola bezala estatusa, eta hemen eskola txiki bezala ageri diren arren, delegaritzaren organigraman trataera berezi bat izan dezaten eskatzen dugu, estatus berezi bat, izendapenetik harago doana. Ezaugarriak kontuan izan, eta beste eskoletatik desberdina den hezkuntza-eredu bat dute la aitortzen duen estatusa onartzea eskatzen dugu Gipuzkoatik. Eskola txikiak bereziak garelako aitortzen dute bai, desberdin funtzionatzen dugula, baina hori ez dago idatzita.

“ Eskola txikiak bereziak garela aitortzen dute bai, desberdin funtzionatzen dugula, baina hori ez dago idatzita eta Hezkuntza Sailari eskatzen diogu estatus desberdin bat edukitzea.

”

Estatus berezitu bat edukitzeak, zertan lagunduko luke?

Lehenik eta behin, batzorde bat eskatzen dugu. Delagaritzarekin eskola txikietako edozein gai aztertu, eztabai-datu eta erabaki behar denean, batzorde bat egotea, hezkuntza saileko ordezkariekin eta irakasle, guraso eta udalen ordezkariekin. Eskola txikiei dagozkien gai guztiak batzorde horretatik pasako lirateke. Horrek gainera, Bizkaia eta Araban ere aldaketa ekarriko luke, batzorde horrek erkidego mailan funtzionatuko bailuke, eta mugimendu handia sortu beharko luke.

Iparraldeko eskola txikiekin ba al daukazue harremanik? Hango egoera ezagutzen duzue?

Arabakoekin, Bizkaikoekin eta Nafarroako eskola txikiekin badugu harremana, baina Iparraldekoekin, egia esan, ez, eta beharko luke, ze ezaugarri eta behar asko seguru oso antzekoak izango direla.

Koordinakunde bezala, helburuetako bat batzordea sortu eta eskola txikien estatusa onartzea da, baina egunean egunean, zein dira zuen beharrak?

Mantentzea da egunean eguneko gure helburua, argi eta garbi. Eskola txiki bat bera ere ez dadila itxi. Hori da oinarria, erronka eta helburua. Jakitun gara oso momentu txarrean gaudela, krisia dela eta ez dela, eta handik eta hemendik datozen murrizketak direla eta ez direla.

Murrizketek zuei bereziki eragingo dizuete?

Datorren urteari begira, eskola txikietako mapa dagoen bezala geldituko dela esan digute. Baina irakasle bat ez ordezkatzeari, adibidez, oso zulo handia da eskola txiki batentzako. Edo ratioak aldatzea, eta horrek gelak eta eskolak ixtea ekarriko luke, eta horrek ikaragarriko murrizketa ekartzen du. Adi gaudete, eta tentu, zer gerta litekeen: Eskola txiki bat ixten baldin badute, bidea irekia dute. Erronka da eustea, nolabait eustea. Etorriko dira garai hobeak, eta



orain, garai txarre-tan daukagunari eutsi egin behar zaio, garai hobeetan gauzak hobetu ahal izateko. Eustea de helburua, ze bestela, delegaritzak ematen dizun aukera da eskola txiki hori itxi eta umeak ondoko herriko eskolara bidaltzea. Beraiek diote eskola txiki asko oso egoera txarrean ikusten dituztela, aitortzen dute egoera, baina ezin dutela esaten dute, eta edo mantendu edo alboko herrira joanarazten dituzte. Horregatik, hainbat eta hainbat herri sufritzen ari dira.

Ixteko egoeran edo egoera txarrean bada eskolarik?

Egoera txarrean daude eskolak azpiegitarari dagokionez, eta eskola ugari daude egoera horretan. Eskola gutxi batzuk badaude egin berriak eta ederrak direnak, baina hori ez da eskola txikien errealitatea, hori salbuespena da. Eskola txikien errealitatea da oraindik ere asko eta asko oso azpiegitura prekarioekin daudela, modulo prefabrikatueta daudela, edo udalak uzten dien lokala oso txiki gelditu zaiela... Horrela eskola mordoxka dauzkagu. Hori hobetu egin behar da, zalantzarik gabe. Hau [Altzoko eskola] da helburua, baina ez da errealitatea, salbuespena baizik. Horretara iristen lagundu behar dugu, dauden egoeraz kontziente izanda. Horren alde borroka egin behar da.

Udalaren inplikazioa eta behar izanez gero elizaren inplikazioa eskatuko dugu, lokalak dauzkaten erakundeen inplikazioa behar dugu. Momentu honetan oso zaila da eskola berri bat egitea, erakundeek ere ikusi ikusten dute beharra badagoela, baina orain ez dute sortuko.

Euskaraz informatuz hik hasi

hik hasiko
harpidedunentzako
eskaintza berezia
BERRIAren harpidetza
%50 merkeago*

H A R P I D E T Z A K A R T A

Asteartetik igandera: hilean 18 euro

Asteartetik ostiralera: hilean 11,5 euro

Larunbata eta igandea: hilean 7,5 euro

PDF harpidetza: hilean 11,5 euro
(aukera honek ez du deskonturik)

* Lehenengo salhilekorako eskaintza.
Hortik aurrera, %10 merkeago



Aukera ezazu
zure beharretara
ondoan egokitzen dena

Harpidedunen beharretara egokitutako zerbitzua:

Goizean goiz BERRIA etxean, kioskoan,
lantokian...

Kioskoan baino merkeago

Promozioetan eskaintza bereziak

Astero-astero opariak harpidedunentzat

Eguneroko papereko harpidetzetan,
PDFetarako sarbidea doan

Harremanetarako:
943-30 43 45 - harpidetza@berria.info

**BERRIA sarean
irakurtzen baduzu,**

izan zaitez
berrialaguna
www.berria.info/berrialaguna



Literatura klasikoa ikasleen eskura

William Shakespeare, Julio Verne, Miguel de Cervantes eta literaturako beste klasiko handi batzuk Lekeitioko Eskola Publikora iritsi dira. Hainbat mendetan gorai-patua izan diren maisu handi horien lana ikasle guztien eskura jarri nahi dute bertako irakasleek. Horretarako, Klasiko Unibertsalen Tertulia Literario Dialogikoak proiektua jarri dute abian.

“Helduentzako literatura” gisa sailkatuta dauden arren, kulturalki ipinitako etiketa hori apurtu nahi dute, lan klasiko horiek irakurri eta eztabaidatuz: lekeitiarrek frogatu nahi dute ikasle guztiek ahalmena dutela lan horiek ulertzeko eta gozatzeko. Aurtengo Karmele Altzueta Hezkuntza Berriztapen saria jaso du esperientziak.

Liburuak irakurtzeko eta haietaz hitz egiteko era berezibat da Tertulia Literario Dialogikoa. Tertulia mota horrek, alfabetatze kognitibo soilaz gain, sozializazio-prozesu zabalago baten ardatz gisa hartzen du irakurketa. Ho-

rrera, kultura idatziak zentzu komunitarioa hartzen du.

Gasteizko Berritzeguneko pedagogoa eta hezkuntza aholkulari Miguel Lozak dioenez, “irakurketaren ikuspegi komunikatibo eta dialogiko horrek askotariko irakurleen arteko hausnarketa eta elkarriketa bultzatuko duen “komunitate interpretatzailea” sortuko du. Ohiko irakurketa egilearen eta irakurlearen arteko harreman pribatu gisa ulertzen da; irakurketa dialogikoa, aldiz, komunitatea eraikitze tresna bat da: irakaspenak sortzeaz gain, pertsonen arteko loturak sortzen ditu, hitzen, sentimenduen eta esperientzien trukearen bidez”.

Irakurketa dialogikoak, beraz, barkara egiten dugun irakurketa aberastu egiten du, eta kultura, jendartea eta norbanakoa eraldatzeko erreminta preziaztu bilakatzen da. Ikuspegi horretatik, liburu abiapuntu hartuta irakurleek be-

ren artean dituzten elkarreraginak dira funtsa. Hortaz, irakurketa dialogikoak, literatura partekatutako plazer bihurtzeaz gain, elkarrekin hausnartzeko eta elkarrengandik ikasteko balio du.

Bartzelonako unibertsitateko soziologiako katedradun Ramon Flechak hauxe dio: “Tertulian, bizitzaz eta literaturaz ikasten dugu, elkarrekin hitz egiten dugun bitartean”.

Josebe Alonsok eta Marta Solerrek, hurrenez hurren Bilboko eta Bartzelonako unibertsitateetako irakasle direnek, hauxe azpimarratu dute: “Irakurketa dialogikoa ikasketa dialogikoaren printzipioetan oinarritzen da, eta, ondorioz, baditu zenbait osagai, testuinguru guztietan zaindu beharko genituzkeenak”. Osagai horien artean, hiru hauek dira garrantzitsuenak: motibazioa eta zentzuaren sormena, testuen ulermen partekatua eta dimentsio instrumentalak.



Tertulia-Dialogiko saio bat

Saioa hasi aurretik

Saioa hasi aurretik, ikasleei tertulia literarioak zer diren azalduko zaie: nolakoa den irakurketa era hori eta norbanakoen iritziak zer garrantzi duen; liburu klasikoak zer diren eta zergatik irakurtzen ditugun; irakurri ondoren zer egin behar duten: ideia edota esaldi esanguratsuak aukeratu, koadernoaren erabilera azaldu, eta aukeratutakoa apuntatu (hasierako hitza izan daiteke, edo esaldi bat, edo paragrafo bat). Gelako tertulia nola egingo dugun ere azalduko diegu: txandak egingo dira, eta bakoitzak aukeratu duena azalduko du, eta zergatik aukeratu duen esango du. Tertuliaren azken zatian, guztion artean eztabaida egingo dutela azalduko zaie; eta, horretarako, gutxieneko arau batzuk errespetatu beharko dituzte: besteei hitz egiteko txanda eman, besteek esandakoa entzun, norberaren arrazoiak ez zaizkiela besteei inposatu behar gogoratu, eta abar.

Horren ondoren, denen artean aukeratu dute irakurriko den liburua; ikasleak txikiak direnean, ordea, irakasleak aukeratu du.

Liburua aukeratu ondoren, etxean edo eskolan irakurriko duten erabakitzeke garaia izango da: irakasleak ikasleek dituzten gaitasunen arabera erabaki beharko du, eta gurasoen inplikazioa sustatzen saiatu beharko du.

Azkenik, saio bakoitzeko zenbat orri irakurri beharko dituzten erabakiko da; irakasleak ikasleekin adostu beharko du hori, ikasleen gaitasunen eta ohituren arabera.

Saioan bertan

Aldez aurreko lan horien ondoren, saioan bertan, ikasle guztiek beren txanda izango dute aukeratutakoa edo idatzitakoa adierazteko, ulertu ez dute-



lako, ados daudelako, atentzioa eman dielako, eta abar. Gerta liteke ikasleren batek saiorako ez ezer aukeratzea. Ez da ezer gertatzen, baina kontuan hartu behar da, sarritan gerta ez dadin.

Ikasle bakoitzari txanda iristen zaionean, aukeratu duen esaldia, paragrafoa edota hitza zergatik aukeratu duen adierazi beharko du. Guztiek txanda betetzen dutenean, eztabaida edo txanda librea zabalduko da. Une horretan, guztiek hitz egiten dutela ziurtatu behar da, koaderno batean horren jarraipena eginez, adibidez.

Ikasleren batek saio batean ez badu parte hartu, aintzat hartuko da, eta hurrengo saioan parte hartzera bultzatuko da. Bestalde, hitz egiteko moduak zaintzeko eskatuko zaie ikasleei: besteek esandakoaren bizkar, ezin da ez barrerik egin ez eta iraindu ere.

Ikasleek azaldutako gaien gainean adostasunak bultzatu daitezke; baina, ados jartzerik lortzen ez bada, ez da ezer gertatzen.

Tertulian, ikasle bakoitzak bere koaderno eta liburua izan behar ditu. Azkenik, saio amaieran, hurrengo egunerako zenbat orri irakurriko dituzten erabaki behar da.

Tertulia Literario Dialogikoaren helburuak

- Ikasle guztien artean irakurzaletasuna bultzatu.
- Ikasleak motibatu eta ilusioz bete.



- Testuei buruzko hausnarketa eta ulermena bultzatu ikasle guztien artean.

- Irakurketa norberaren eta taldearen bizipenekin lotu.

- Irakurketaren bidez besteekin elkarriketak sortu.

- Irakurketaren balioa eta erabilgarritasuna balioetsi.

- Liburu klasikoaren esparrua ikasle guztiengana hedatu.

Aipatutako helburuez gain, tertulia dialogikoak baditu beste helburu hauek ere:

- Irakurketaren ulermena hobetu.

- Ahozko adierazpena garatu.

- Irakurketaz gozatu.

- Entzuteko ohiturak sortu.

- Ahozkotasuna landu.

- Idatzizko komunikazioa hobetu eta sustatu.

- Autoestimua sustatu.

- Izaera kritikoa eta solidarioa garatu.

- Senideen eta jendartearen testuingurua eraldatu.

- Ikasleen eta irakasleen arteko elkarriketa hobetu.

Tertulia Dialogiko Literarioan, Lekeitioko eskola publikoko ikasle guztiek hartzen dute parte. Etxean edo eskolan (adostutakoaren arabera), aurrez zehaztutako orrialdeak irakurriko dituzte liburutik. Irakurketa hori egitekoan, garrantzitsua da tertulia-koadernoan paragrafo edo ideia esanguratsuren bat jasotzea: ikasleari deigarria egin zaiolako, ez duelako ulertu, norberaren bizitzarekin zerikusia duelako, eta abar. Jasotako hori ikaskide guztiekin partekatuko du gero.

Koadernoetan jasotako ideia guztiak komentatuko dira, eta ikasle guztiek aukera bera izango dute hitz egiteko eta besteek esaten dutena entzuteko eta eztabaidatzeko.

Irakasleen lana tertulia dialogikoetan

- Irakasleak proposatu eta adostuko du saio bakoitzean zenbat orrialde irakurriko diren.

- Hitz egiteko txandak emango ditu.

- Eztabaida gidatuko du: isilik dauden edo hitz gutxien egiten duten ikasleak animatuz eta, alderantziz, maiz hitz egiten dutenak isilaraziz.

- Ikasleen arteko adostasunak bulatzatuko ditu, horretarako aukera dagoenean.

- Ikasten ari diren beste gai edo arlo batzuekiko loturak sortzen ahaleginduko da.

- Tertulia dialogikoek eraginak dituzte ikasleengan. Tertuliek dituzten ondorioen artean, hauek aipatu dituzte:

- Literatura-lanari buruzko askotari-ko iritziak partekatu.

- Sentipenak eta pentsaerak trukatu.

- Kalitatezko literaturarekin gozatu.

- Berdintasunezko elkarriketa-gu-neak sortu: argumentuen indarra baliotzatu.

- Irakurketa partekatu senide edo beste kide batzuekin.

- Elkartasuna garatu: "paragrafoak" trukatu.

- Kultura guztien balioespen baiko-rra sustatu.

- Oinarrizko konpetentziak garatu.

- Nolakoak izan nahi dugun erabaki, eta gure ideiak eraldatu, besteek esandakoa entzunez.

Eskolako partaideen iritziak

Lekeitioko eskola publikoko partaideei Tertulia Literario Dialogikoei buruz galdetuta, erantzun baikorrak eman dituzte:

Ikasleen iritzia

"Tertuliak mundialak dira, "nagusiek" izan ohi dituzten eztabaidak irte-ten direlako, eta baita oso gai garrantzitsuez hitz egiten dugulako ere: maitasuna, erlijioa, gure sentimenduak eta besteak..." (A., 10 urte)

"Tertuliak gustuko ditugu, ikasteko modu berri bat delako, eta gure artean berba eginez eta eztabaidatuz ikasten dugulako. Batzuetan liburua gure bizi-tzan gertatutakoarekin konparatzen dugu, eta hori gustatu egiten zaigu" (J., 8 urte)

"Gauza bat ez dakigunean, galdetu egiten dugu, eta, horrela, guztion artean komentatzen dugu" (Y., 9 urte)

Etxeko iritzia

"Eskolan klasikoak irakurriko zirela jakin genuenean, pixka bat beldurtu egin ginen, gaur egun ez baitira horre-

lako liburuak irakurtzen... Baina ideiarekin bat egin genuen, eta gustura hartu genuen" (P., 5. mailako guraso bat).

"Klasikoen proiektua dela-eta, etxean elkarrekin irakurtzen hasi gara. Oso kurio-oso da, txikitari guk geuk irakurritako liburuak baitira... Baina orain beste modu batera irakurtzen dituzte. Agian, modu horretan, seme-alabek gehiago ikasten dute, irakurketak beste zentzu bat hartzen duelako. (J., 3. mailako guraso bat)..

Irakasleen iritziak

"Hasiera batean, mesfidati geunden: ez genekien lanak gure ikasleak motibatuzeko modukoak izango ziren ala ez. Baina gure beldurrak besterik ez ziren. Seguruenik guk geuk izan genuen esperientzia ezkorragatik..." (J., bigarren mailako tutorea).

"Sinestezina. Ez nuen irudikatzen tertulia-euskarri horretan klasikoen irakurketak izan zezakeen aberastasuna. Egia da liburuak ondo aukeratu behar direla, eta euskaraz ez dago aukera zabalik, baina, bi edo hiru hizkuntza erabiliz gero, ez dago arazo handirik. Horrez gain, azpimarratzekoa da, baita ere, irakasleok gure ikasleekin batera ikasten dugula, guztion arteko elkarre- kintzan. (B., seigarren mailako tutorea). ●





IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUEK
KEZKATZEN ZAITUZTE ETA HONEN HOBEKUNTZAN
LAN EGIN NAHI DUZU?"

BERRIMET. BERRIKUNTZA DIDAKTIKO-METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN
GARAPENA ETA KUDEAKETA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN *Unibertsitate
Masterra. %100 Online.*



MUNDU GLOBALIZATUAK HEZKUNTZAN ERAGINDAKO
EGOERA ELEANITZ ETA KULTURARTEKO
BERRIETARAKO PRESTATUTA EGON NAHI DUZU?"

EKOMU. HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANIZTUNETAN
Unibertsitate Masterra. %100 Online.



IKASI DUZUN GRADUA IKASI DUZULA, IRAKASLE
MODUAN IKUSTEN DUZU ZURE BURUA?"

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN, LANBIDE
HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GISA ARITZEKO
GAITZEN DUEN *Unibertsitate Masterra.*



EUSKAL KULTURGINTZAREN TOPAGUNEAN PARTE
HARTU NAHI? ATZOKO, GAURKO ETA BIHARKO KULTURGINTZAREN
TRANSMISIOA: ESPERIENTZIAK ETA KUDEATZEKO BIDEAK.

EKT. EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA *Aditu Titulua.*

IRRIEN LAGUNAK Oarsoaldean

**Haurrentzako aisialdi-
eskaintza hezitzailea,
euskalduna, herritarra eta
parte-hartzailea sortzea da
abian jarri den egitasmo
berriaren xedea.
Horretarako, egitasmoan
buru-belarri parte hatzera,
ekarpenak egitera eta
gainerako herritarrei zer den
nahi dutena azaltzera
bultzatu nahi dituzte hau-
rrak, ez baitira ikusle edo
kontsumitzaile hutsak. Bide
batez, etorkizuneko herri-
eragileak bilatu nahi dituzte
eskoletan.
Irrien Lagunak Kluba,
SORguneak ikertegia eta
Oarsoaldea Garapen Agentzia
dira egitasmo handi horren
sustatzaileak. Auzolan
erraldoi baten hastapena
izango da, Oarsoaldean.**

Izen hori du Oarsoaldean (Gipuzkoa) Irrien Lagunak Klubak eta Oarsoaldea Garapen Agentziak abian jarri duten egitasmoak. Oarsoaldea bailara Lezok, Oiartzunek, Pasaia eta Errenterriak osatzen dute.

Egitasmoak “haurrentzako aisialdi-proiektu hezitzaile, euskaldun, herritarra eta parte-hartzailea izatea” du xede. Helburu nagusia, berriz, “herri-dinami-



ka sendo eta iraunkorra eratzea” da.

Asmo handiko egitasmo hori “herriko taldeen, eragileen, herritarren eta erakundeen arteko lankidetzatik garatuko da”, behetik gora, eta izaera parte-hartzailea eta inklusiboa izango du.

Egitasmo horren esparrua haurrentzako aisialdia izanik ere, haurrak, gazteak eta helduak integratu nahi ditu *Irrien Lagunak Oarsoaldean* egitasmoak. Haurrak izango ditu protagonistak, eta gainerakoak, aldiz, parte-hartzaile eta laguntzaile izango dira. Izan ere, beste helburuetako bat belaunaldien arteko harremana da.

SORguneak ikertegia

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) SORguneak ikertegiak egin du egitasmo horren esparru teorikoa. SORguneak ikertegiak funtsezkotzat jotzen dituen bost oinarri teorikoak goitik behera betetzen dituelako Irrien Lagunak Oarsoaldean egitasmoak. Hauek dira bost oinarri horiek:

1. Euskaraz bizitzeko nahia birsortzeko zeregin garrantzitsua du euskal

kulturak.

2. Euskarazko ekimen askok etekin ez-material gisa garrantzi handia dute, eta, horregatik, zaindu eta babestu egin behar dira, baita merkatu-arauetatik ere.

3. Tokian tokiko gizarte-eragileak eta tokian tokiko eragile publikoen indarrak norabide berean jarritz, herri eta auzoetako kulturagileen kolektiboen eta sortzaileen arteko lotura sustatzea komeni da.

4. Beharrezkoa da euskarazko kultura-produktuen hegemonia eta eredu eta gune propioak babestea eta bultzatzea.

5. Beharrezkoa da transmisioa, sormena eta zaletasuna bultzatuko dituzten eskualdeak, herriak eta tokian tokiko ekimenak sustatzea eta taldeen baliocapena indartzeko ekintzak antolatzea, kultura-eragile guztiei begira.

Egitasmoaren ezaugarriak

SORguneak ikertegiak lau ezaugarri funtzional eman dizkio egitasmoari:

1. Laborategi-izaera: orain arte, egitasmo berri eta bakarra delako, eta herri eta komunitate batzuei berariaz begirakoa delako, izango da laborategia. Izan ere, egindako urratsek, hartutako erabakiek eta konpromisoek hurrengo urratsak bideratuko dituzte. Egitasmoaren izatea eta diseinua egin ahala zehaztuko da eta joango da gorputza hartzen, beraz. Behetik gora, modu horizontalean eta zehar-lerroetan garatuko da, gainera.

2. Sexuen arteko berdintasuna: kopuruaz gain, garrantzitsua da sexuei esleituko roletan sortzen dituzten funtzio-

namendu desberdi bereiztaileak kontuan izatea, bai emakumeen kasuan eta baita haurren kasuan ere. Izan batzordeetan, lan-taldeetan, agerpenetan, antolakuntzan edo edozein lanetan.

3. Herrien autonomia: egitasmoa herri bakoitzaren arabera izango da, herriaren gogoaren, indarraren, iruditeriaren, beharren edo funtzioen arabera, hain zuzen. Ondorioz, berezia izango da herri bakoitzean egingo dena, "proiektu bera eta komuna izanda ere".

4. Eskualdeko koordinazioa: ezinbestekoa da herrien arteko koordinazioa, lan-sistemari eta marko orokorren aplikazioari dagokienez. Nork bere bidea eginagatik, guztien artean partekatua izan behar du, eta elkar elikatu behar dute. Guztien artean egindako bide horrek eskualdearen izaera indartzeko eta bertan identifikazio- eta lan-eremu bat sakontzeko balio dezake.

Bestalde, *Irrien Lagunak* eta herrietako kulturgintza ongi ezkon daitezten, eta herrian herriko batzorde nagusiak onartu gabeko errepikapenik, ordezkapenik edota kanpotik ezarritako ekimenik izan ez dadin, egitasmoak hiru printzipio bete behar dituela uste du SORguneak ikertegiak. Dagoena ez ordezkatzeko datzan printzipioa da lehen; bigarrena, ez dagoena sortzeko aukeraren printzipioa da; eta, azkenik, hirugarrenak herrietako bestelako prozesuak kontuan hartzea eta, ahal dela, bateragarri edo osagarri egitea du xede.

Haurren parte-hartze erreala, oinarrizko printzipioa

Haurrak ez dira egitasmoaren kontsumitzaile hutsak, ezta gonbidatuak ere. Haurren parte-hartzea erreala izango da, zintotasunez onartutakoa. Horren ondorioz, programazio horien diseinuan, antolaketa, eztabaidan eta



erabaki-guneetan haurrak egongo dira, gainerako kideen parean.

Egitasmoa hezitzailea den neurrian, kontuan hartzen ditu natura, kultura, zientzia, osasuna eta elkartasuna. Guztietan eragiteko xedea du, eta eremu horietako guztietako eragileak erakarri eta lanean jarri nahi ditu: herrigintzakoak, erakundeetakoak eta udaletakoak.

Irrien Lagunak Oarsoaldean egitasmoan, berebiziko garrantzia du prozesuak. Eta bi ardatz zehaztu dira, batez ere, horren baitan:

- Zer: antolatzen den horrek zer hizkuntza, zer kultura, zer aisia, zer heziketa mota, zer balio, zer herrigintza-eredu, zer saretze-maila eta abar elikatzen dituen.

- Nola: oso kontuan izan behar du egiten denaren oinarriak demokratikoak, berdintasunezkoak, parte-hartzaileak eta irekiak diren edo ez. Egin, sortu eta diseinatu ahala, "ekimen horrek balioztatzen joan behar du, nahitaez". Hala ere, prozesuaren garrantziak ezin du ekarri jomugan lorpenik edo egitasmo zehatzik ez izatea.

Lan-batzordeak abian

Eskolara begira ere badago hurrei entzun nahi dien egitasmo hori. Eskoletako neska-mutilak herrigintzako proiektuetan integratu nahi ditu, gaur egungo parte-hartzaile aktibo egin nahi ditu, alegia. HUHEZIKo fakultatean, badute ikasgai bat, JARDUERA SOZIOKULTURALAK izenekoa. Ikasgai

horretan dituzten Oarsoaldeko ikasleak egitasmoan lanean jarriko dituzte, praktika moduan. Izan ere, "irakasleak herri-eragile izan behar du", egitasmoa bultzatzen duten kideen iritziz.

Egitasmoak, epe laburrera, herri-batzordeak eta lan-taldeak jarriko ditu abian, egitasmo zehatzak diseinatzeko eta gauzatzeko. Era berean, lan-sistema jarraitu eta dinamikoa bideratu nahi dute. Epe ertainera, berriz, 2012ko irailean eskualdeko jaieguna antolatzea litzateke asmoa. Epe luzera, azkenik, haurrentzako urtebeteko programazio kultural hezitzaile jarraitua osatu nahi dute herri bakoitzean.

Martxoaren 24an egin zuten lehen urratsa. Egun horretan, Jakintza Truke-rako Topagunea egin zuten herriko eragileek, taldeek, elkarteek, ikastetxeek, agintariek, haurrek eta herritarrek; bildu, eta, nork beretik emanez, jakintza trukatu, ekarpenak eginez eta eztabaidatu, ekimena zer izan daitekeen irudikatu zuten, egitasmoari gorputza ematen hasteko. Auzolan handi baten lehen pausoa izan zen. Denek elkarrengandik ikasi nahi dute, euskaraz, auzolan horretan. ●



Zergatik hitz egin behar diogu heriotzaz haurrari? Nola lagunduko digu haur-literaturak



Heriotzaren gaia ez da atsegina, noski, baina unibertsala da, halabeharrezkoa. Batzuei galdera hau sortzen zaie: eta horren garrantzitsua al da gai hori? Denoi gertatuko zaigun zerbait, dudarik gabe, ez da albistea, arrunta da, egunerokoa, ohikoa. Denoi gertatu beharrekoa bada, orduan, zergatik ezkutatzen dugu?

Pentsatzen dut heriotza hezkuntzan ez dela lantzen, edo eskolan heriotzaz ez dela hitz egiten, besteak beste, askotan geu ez garelako eroso sentitzen gai hori aipatzerakoan. Beste arrazoi bat izan daiteke, agian, pentsatzea heriotzaz hitz egitea haurrarentzat txarrerako izan daitekeela, larritu edo nahastu egingo dugula. Baina, nire iritziz, justu kontrakoa eragingo dugu: bate-tik, haurrak gehiago balioetsiko du daukana; eta, bestetik, lasaiago sentituko da, buruan zerabilen korapiloa askatzen lagundu baitiezaiokegu.



Txabi ARNAL

EHUKO GASTEIZKO IRAKASLE ESKOLAKO
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Lehen Hezkuntzan, eta batez ere Haur Hezkuntzan, haurrak jakin-min handikoak direla ikasi dut irakasle izan naizen garaian, beste gauza askoren artean: haurra etengabe prestatzen ari den biziduna dela, eta gauza guztiei buruz jakin nahi duela, desatsegina izan arren.

Garai horretako irakasle-eskarmantuak erakutsi dit, era berean, eskolako curriculumak ez diela heltzen “gai deserosoei”. Bitxia da. Inguruneko ikasgaiko curriculumak edo ikasliburuak aztertzen baditugu, ikusiko dugu bizitza, garapena, ugalketa, eta abar azaltzen direla, zikloaren aldi guztiak erakusten direla; heriotza, aldiz, ez da aipatu ere egiten.

Heriotza eta beste gai deseroso batzuk sortzen direnean ikastaldean, ordea, irakasleei baliabideak eta tresnak falta zaizkie. Niri, behintzat, falta zitzaizkidan, eta falta zaizkit oraindik. Ez dugu sekula gai hori jorratu, ez digute azaldu, ez dugu azaldu, ez dakigu nola esplikatu, ez dugu baliabiderik, eta, gehienetan, ez dakigu heriotzarekin zer egin. Ondorioz, baztertu egiten dugu.

Horri guztiari hau ere gehitu behar diogu: nahiko zabaldua dago heriotza



Erlbruch, W. (2007). El pato y la muerte

ez dela gai egokia hurrekin lantzeko, haur bati azaltzeko. Hortaz, sexuarekin, homosexualitatearekin eta beste hainbat gairekin batera, tabuen zakuan ezkututzen dugu heriotzaren gaia. Eta ezkutatze hori familian eta komunikabideetan ere gertatzen da. Irakasleok eta, oro har, helduok geure buruari galdetu beharko genioke zergatik ezkututzen dugun era horretara horren naturala eta unibertsala den gai bat, denoi gertatu behar zaigun gertaera bat.

Heriotzaren gaia tratatzeko era horrek zerikusi handia du, nire ustez, gaur egungo bizitzeko moduarekin. Gure herriak txikiagoak zirenean, herritarrek parte hartzen zuten hileta bat gertatzen zenean; familia eta hildakoa agurtu egiten zuten; familiari lagundu egiten zioten, eta familia babestu egiten zuten. Gaur egun, aldiz, gaixoak ospitalera eramanean, eta, hiltzen direnean, handik tanatoriora eramaten ditugu; ezkutatu egiten ditugu: badirudi gaixotasuna eta heriotza ez daudela ongi ikusiak. Ospitalera edo tanatoriora eramaten ditugunean, hurrengandik urrundu egiten ditugu. Hortaz, heriotza helduoi dagokigun gai bihurtu da. Ohitura bihurtzen ari da kultura hori, eta ez du asko laguntzen heriotza ikusteko eran.

Oso garrantzitsua da hurrekin hitz egitea: baita gai horiez ere. Aurrez aurre, itzuli-mitzuli ibili gabe, eta haurrak ulertuko du, bere neurrian. Beraz, hori-

xe da oinarrizkoena, funtsezkoena: haurrari esatea, eta egia esatea.

Izan ere, askotan, errealitatea gezur baten atzean gordetzen dugu. Hori oso kaltegarria da haurrarentzat, mina bikoiztu egiten baitiogu. Haurrak absentzia nabaritu du, eta, egun batean egia esaten diogunean, gainera, gezurra esan geniola konturatuko da, eta gureganako konfiantza ezbaian geratuko da.

Ez da erraza, ordea, haurrari maite duen norbait hil dela esatea. Etxekoek haurra ezagutu behar dute, jakiteko zer, noiz eta nola esan. Baina abiapuntua horixe da: esan egin behar zaie, eta lehenbailehen, gainera. Esateko lan horretan, oso kontuan hartzekoak dira norberaren sineskerak. Sinesmenen, akaso, erantzun gehiago, argudio gehiago, izan ditzakete, haurrak egin ditzakeen galderetarako. Norberak kontatu behar du heriotza, bere sinesmenak kontuan hartuta edo sinesmena abiapuntu izanik; baina, betiere, zer gertatu den kontatu behar zaio haurrari. Jokabide horrek asko lagunduko dio haurrari doluan.

Yalom psikiatra juduak umezurtegi batean egin zuen ikerketak baieztatu egiten du jokaera horren egokitasuna. Umezurtz batzuei hasieratik esan zitzaien han zergatik zeuden; beste batzuei, berriz, beste erantzun bat eman zieten, behin-behinekoa. Ikerketaren ondorioak argiak izan ziren: hasieratik

Nahiko zabaldua dago heriotza ez dela gai egokia hurrekin lantzeko. Hortaz, tabuen zakuan ezkututzen dugu.



egia jakin zuten hurrek dolua azkar eta ongi egin zuten. Gezurra esan zitzaientek, aldiz, ezin izan zuten dolua osatu, egia jakin zuten arte. Horren ondorioz, dolu fasea luzatu egin zitzaien, eta min luze eta handia bizi izan zuten. Ikerketa horrek argi adierazten du, beraz, zein funtsezkoa den haurrari hasieratik egia esatea.

Horregatik, izugarri poztu nintzen Heriotzaren Pedagogia izeneko korrontearen berri izan nuenean. Hezkuntza- eta didaktika-arloetan orain arte inor gutxi urratzen ausartu den bideetan barrena gidari lanak egiten ahalegintzen da korronte hori, hezitzaileei eta helduei begira.

Hurrek galera bat izan dutenean behar duten laguntzaz, sentimenduak libreki adierazten uzteaz, hala nahi du-



tenean maite duten hori agurtzen uzteza eta nahi dutenean heriotzaren gainean libreki hitz egiteko aukera izateaz mintzo dira Heriotzaren Pedagogian dabilzan pedagogoak. Haien iritziz, era horretan jokatzek, heriotza desmitifikatzeaz gain, heriotza ulertzen laguntzea dakar, eta txikienei beren minari eta beldurrei era naturalean aurre egiten laguntzea, galera ahalik eta trauma gutxienarekin onartzearen alde lan egitea eta pausoak ematea.

Nola azaldu, baina, haurrari heriotza?

Haur bati heriotza kontatzeko, egokia izan daiteke liburu bat (ipuin bat, album bat) erabiltzea. Ezin dugu, ordea, guztia liburuaren gain utzi; liburuaren tresna bat besterik ez da. Heriotzaren Pedagogia korranteak heriotza azaltzeko hainbat jarduera proposatu ditu. Jarduera horiek bi multzotan bereizten ditu:

Prebentzio-jarduerak: heriotza gertatu aurretik egin beharreko jarduerak dira, beste edozein motatako jarduerak egiten diren gisara. Ez da beharrezkoa taldean heriotza bat gertatzea –senideren batena, edo maskotaren batena–, jarduera horiek egiteko: heriotza tratatu egin behar delako, landu egin behar delako, egin behar dira.

Jarduera aringarriak: heriotza gertatu ondoren egiten direnak dira.

Nire ustez, garrantzitsuagoak dira lehenengoak. Askotan, heriotza bat gertatu denean bilatzen ditugu tresnak edo jarduerak heriotzaz hitz egiteko, eta, beharbada, une hori ez da aproposena haurarentzat, ez da mementoa, minduta baitago. Horregatik, pentsatzen dut heriotza gaitzat duten liburuak eta materialak aurretik landu behar direla.

Haurrentzako albumak aztergai

Nire asmoa heriotzaren gai aztergai izan diren euskarazko albumak aztertzea zen. Ohartu nintzen, baina, aurkitu nuen al-

bum kopurua ez zela tesirako corpusa osatzeko adinakoa.

Horregatik, era batera edo bestera heriotza jorratzen zuten gaztelaniazko 57 album inguratu nituen, liburutegietan, German Sanchez Ruperez Fundazioan eta hainbat aldizkaritako erreferentzietan aurkitutakoak.

Albumak aukeratu nituen, Haur Hezkuntzan askotan erabiltzen den generoa delako. Albumetan, testuaren eta marrazkien bidez kontatzen dira istorioak: biek kontatzen dituzte istorioak, eta bien artean osatzen dituzte.

Albumak aukeratzeko erabili nuen beste irizpide bat gaurkotatzea da: albumak bizirik egotea nahi nuen, norbaitek eskuratzeko interesa bazuen, erraz topatzeko. Horregatik, aztertutako albumak 1980tik 2008ra bitartean argitaratutakoak dira.

Albumak aztertzen hasi aurretik banuzkan hipotesi batzuk. Pentsatzen nuen, horrelako gai deseroso bati buruz aritzerakoan, arlo didaktikoari emango zitzaiole lehentasuna: haurrei ipuin-formatuan heriotza nola kontatu izango zutelako.

Nire harridurarako, ordea, liburu horietan arlo didaktikoak oso pisu txikia du. Baziren album batzuk oso didaktikoak zirenak, baina gutxi, %10 ezta: aztertutako 57etatik 5 edo 6 besterik ez dira sortu interes didaktikoare-

kin. Gainera, liburu didaktiko horiek, batez ere, lehen hamarkadakoak dira. Joera, beraz, gero eta literarioagoa da; heriotzaz hitz egiten dute, baina naturaltasunez.

Bestalde, hainbat ikuspegitatik lantzen dute heriotza: motak edo zergatiak askotarikoak direlako, hildakok desberdinak direlako, eta abar. Haurraren ikuspegitik ere heltzen diote heriotzari, haurrentzako liburuak direlako eta, nolabait, irakurlearekiko konplizitatea bilatzen dutelako.

Nire beste hipotesi baten arabera, erlijioak pisu handia izango zuen, halaber. Ez zen horrela gertatu. Albumetan, bizitza ziklo bat dela azpimarratzen da batez ere, eta oso gutxitan ematen da azalpen erlijioso bat: ez dira %10 eristen. Uste dut haurarentzat egokia dela hori; izan ere, 6 urteko haurraren pentsamendua ez da batere abstraktua, eta egiazta dezakeena soilik aipatzen zaio album gehienetan, lege fisikoak esaten duena: lege fisiko eta unibertsalak esaten du jaiotze eta hil egiten garela, alegia. Beraz, albumak ikuspegi laiko batetik eginda daude.

Izan nuen beste ezustekoa sexuen trataera izan zen. Nire hipotesiaren arabera, sufrutuko zuena eta sentimenduak adieraziko zituen neskatoa, neska, emakumea izango zen. Sexuen trataera, ordea, oso orekatua da aztertu di-



Toledo, N. (2006). La Muerte pies ligeros



Voltz, C. (2008). "La caricia de la mariposa"

tudan albumetan; hau da, batez ere dolua haurrek bizi dute, eta ia neurri berean sufritzen dute neskek eta mutilek. Eta oreka hori ez da alde kuantitatiboan soilik agertzen, biek sufritzen eta azaleratzen baitituzte sentimenduak; are harigarriagoa da hori, kontuan izanik sentimenduak adieraztea beti emakumearen rola izan dela. Are gehiago, heriotzarekin oso lotuta dagoen sentimendu bat, beldurra, batez ere mutilek adierazi edo azaleratzen dute. Heriotzaren aurrean oldartzea, ez konformatzea, hori batez ere neskek agertzen dute. Aitzitik, laguntzeko zeregin edo funtzioari dagokionez, dolua egiten ari den haurri laguntzen diona emakumea da beti: haurri gertatutakoa azaltzen diona, haurra babesten duena, eta abar, emakumea da: ama, amama... beti emakumea. Gizonari ez zaio babes- edo laguntza-funtzio hori egiteko aukerarik ematen. Arlo horretan, sexuen ikuspegitik, beraz, ez da batere orekatua.

Azterketan nabarmen agertu den

beste alde bat albumen ausardia da. Albumetan, hiltzen dena batez ere aitona da. Hori bizilegea da, naturala da, bizitzan, gehienetan, horrela gertatzen delako eta datu demografikoek ere hori diotelako. Haur-literaturak, baina, ez du ukatzen ama ere hil daitekeela: album batzuetan hala gertatzen da, ama da hiltzen dena. Eta hori ausardia handiz jokatzeko da, haurarentzat ama baita pertsonarik garrantzitsua. Beste batzuetan, haurra bera da hiltzen dena.

Bestalde, heriotza bortitzak gertatzen dira: gerra agertzen da, adibidez. Ez da ezkututzen, beraz, heriotza era bortitzean ere gertatzen dela.

Esku artean nuen beste hipotesi bat hauxe zen: haur-literatura dela kontuan izanik, egileek, askotan, filtro modura animaliak erabiliko zituzten. Izan ere, ez da gauza bera heriotza animalien bidez kontatzea, edo gizon-emakumeen bidez kontatzea. Albumetan, zenbaitetan, animaliak dira hildakoak, baina ez dira % 25era iristen. Beraz, esan genezake heriotza naturaltasunez

Baina haurrak bizitzak alde ilunak eta tristeak badituela jakin behar du.

Haurrak jakin dezan beldurraz, abenturaz, bizitzaren atseginez.



erakusten dutela.

Albumen azterketak beste alde bat utzi du argitan: gaur egungo literaturan, oraindik ez da erakusten heriotzaren alde fisikoa; hilotza ez da erakusten, ez testuan eta ezta irudietan ere. Horrekin batera, denbora iragatearen eta gaixotasunaren ondorio fisikoak ere ez dira erakusten.

XXI. mendearen lehen urteetan, bikoiztu egin da heriotza gai nagusi duten haurrentzako lanen kopurua. Alta, he-



Erilbrusch, W. (2007). El pato y la muerte



Ramón, E. (2003). No es fácil, pequeña ardilla

riotzaren inguruko haur-literatura dei diezaiokegun horretan, hainbat azpitabuk hor jarraitzen dute. Zenbait heriotza-arrazoik ezin aipatuzkoak izaten jarraitzen dute. Heriotza leundu egiten da. Lan horietan, heriotza adinekoeiera naturalean gertatzen zaien gertaera gisa aurkezten jarraitzen da, ez zaie gazteei ia inoiz gertatzen, gainera. Ez dago bortizkeriarik, ez istripurik, ez gaixotasun terminalik, eta are gutxiago suizidiorik.

Doluaren osaera egokia

Haur-literatura ausartaren hariari tiraka, J. William Worden psikologiako irakasleak dio dolua ongi osatzeko, haurrak bi behar ase behar dituela: alde batetik, babestuta edo lagunduta sentitu behar du, pertsona bat izan behar du ondoan, sentitzen duena kontatu ahal izateko; bestalde, haurrak hildakoa agurtzeko aukera izan behar du. Wordenen ikerketen arabera, haurrak hildako lagun maiteari agur esateko aukera baldin badu, agur esaten badio, dolu fasearen edo aldiaren lehen etapa jada gainditua izango du. Aztertutako album askotan, haurrari aukera ematen zaio hiletan, elizkizunetan eta halako agurretan parte hartzeko, eta haurrak parte hartzen du. Haurra heriotzara hurbiltzeko modu bat da, eta oso interesgarria da hori. Beraz, alde horretatik ere, haur-literatura ausarta da, haurra errealitate horretara hurbiltzen duela. Ausarta eta egokia, gainera.

Aزتتutakoak aztertuta, esango nuke heriotzaren gaiak haur-literaturaren interesa piztu duela. Pixkanaka, gero eta liburu gehiago argitaratzen dira, heriotzaren gaia jorratzen dutenak. Aztertutako 57 albumetatik, 31 azken zortzi urteotan argitaratutakoak dira. Datu horretatik ondoriozta daiteke heriotzaren gaiak baduela interesa literaturarentzat. Kontua litzateke interes horren jatorria zein den aztertzea: egoeraren arabera den; egilearen ekimenez gertatu den, hau da, sortzeko askatasunagatik izan den; edo argitaletxeak, jendarteak eta ikastetxeek eskatu dutelako gertatu den. Gerta daiteke hez-

kuntzan gai horren inguruan sortutako nolabaiteko moda baten eragina izatea ugaltze hori, eta horrek badu arriskua: norbaitek pentsa dezake jada bete dela zegoen hutsunea. Datozen urteek erakutsiko dute hori horrela den ala ez.

Erronka handi bat dugu aurrez aurre, tabu bihurtu ditugun gai "deseroso" horien gainean hitz egiteko. Datozen urteetan, era naturalean idatzi beharko genuke, modu naturalean, haien gainean. Izan ere, haurrak abentura nahi du, emozioa nahi du, sentitu egin nahi du. Gai horiek agertu egin behar dute literaturan, baina ez soilik deserosoak direlako, gainerako gai guztien pare agertu behar dutelako baizik: haurrak jakin dezan beldurraz, abenturaz, bizitzaren atseginez... Baina haurrak bizitzak alde ilunak eta tristeak ere badituela jakin behar du.

Jaiotzeak heriotza du zor esaera zaharrak laburbil dezake, askotan, ezkututzen dugun errealitate horren mami: heriotza beti egongo da, ezin dugu ezer egin; gertatuko zaigu, eta gertatuko zaie. Hala ere, haurrekin gai horretaz hitz egiten badugu eta gaia naturaltasunez ateratzen badugu, zama hori eramaten lagundu egingo diegu, edo zama hori arinago eramaten, behintzat. Lan horretan, tresna egokiak izan daitezke albumak. Eta hiltzen jarraituko dugu, eta tristea izango da, beti. Baina, norberak horrelako gertaera baten aurrean egin behar duen dolua egiteko, tresna egokiak eskaini diezazkiekegu.



¿Como es posible?! La historia de Elvis.

Hainbat titulu aipagarri

Lehen esan dudanez, album gehienen balio literarioa oso handia da, eta, horregatik, eta ez soilik jorratzen duten gaiarengatik, liburutegietan eta ikastegietan egon behar lukete. Hala ere, honako hauek aipatuko nituzke, besteak beste:

-Van Ommen, Sylvia: *Regaliz*, Kokinos, 2005: balio literario handiko liburua da, eta, gainera, heriotzari buruz hitz egiten du haur batzuen ikuspegitik, hildakorik egon gabe. 4 urtetik gorako haurrentzat.

Voltz, Christian: *La caricia de la mariposa*, Kalandraka, 2008: haurrak aitonari galdetzen dio hil den amonari buruz. Marrazkigileak, collagearen bidez, amona agerrarazten du, aitonaaren kontakizunak irauten duen bitartean. Proposamen egokia heriotza aipatzeko, batzuk joan arren gelditzen direnak aipatuz. 6 urtetik gorako haurrentzat.

SCHÖSSOW, Peter: *¿Cómo es posible?: La historia de Elvis*, Lóguez, 2006: album honetan, neska bati txoria hil zaio. Parkean dabiltzan lagunek lagundu egingo diote mina arintzen. 6 urtetik gorako haurrentzat.



Voltz, C. (2008). "La caricia de la mariposa"



Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

ekaina

berriak

Euskal Eskola Publikoa haratago



BIHEko Xabier Mendizabal eta Josu Etxaburu eta EHIGeko Lurdes Imaz, Bilbon.

BIHE (Bigarren Hezkuntzako Zuzendarien Elkarteak), EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak) eta SAREAN elkarteek (Lehen Hezkuntzako zuzendarien elkarteak) “**Euskal Eskola Publikoa haratago**” izeneko dokumentua aurkeztu zuten maiatzaren 3an Bilbon.

Berrikuntzen aldetik, ikastetxeetako hezkuntza proiektua hobeto garatu ahal izateko behar den autonomian jarri zutela indarra litzateke adierazgarriena: arlo guztietako autonomian.

Azaldu zuten, “Lan-prozesu luze baten emaitza da dokumentu bizi hau; izan ere, hezkuntza-komunitatearen

ekarpenak jasotzeko asmoa dugu. Euskal hezkuntza sistemari buruzko edozein eztabaidetan kontuan hartzeko dokumentua izatea espero dugu”.

Dokumentuaren helburuak:

- Legedian etengabe ematen ohi diren aldaketek, desoreka eta eragin negatiboa egin diote ikastetxeetako proiektuen jarraipenari. Aldaketa horiei aurre egiteko beharrak, eta Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren berezitasunek, Euskal Eskola Publikoaren identitate propioa joan dira modelatzen.

- Azken urteotan ikastetxe publikoetan egin diren praktika pedagogikoen

hezkuntzaren hobekuntzari egin dizkioten ekarpenen mamia biltzea eta eskolei eta gizarteari ondare hori proiektatzea.

- Dokumentuarekin ere aitortpena egin nahi diote gizarteari: “Askotan jabetzen gara eskola publikoetan egiten den kalitatezko lan duinak ez duela mezezi duen oihartzun publikorik izaten. Horregatik, dokumentuaren arrazoietako bat da gizarteari eskola publikoaren errealitatea eta nahiak azaltzea zuzenean protagonista garenen eskutik. Dokumentua bera ez da nahikoa ikastetxe publikoetan egiten den guztia azaltzeko, baina bai sintesi on bat, jada egiten dena eta egin nahi duguna azaltzeko”.

- Bestalde, “Dei egiten diegu herritarrei eta denon ordezkariak diren arduradunei, kalitatezko eta euskalduna den eskola publikoa berma dezaten, Euskal Herriak duen gizarte-ondare garrantzitsuenetako bat delako. Hezkuntza Publikoa kohesio soziala, euskal gizarte justuagoa eta herri bezala bizikidetzara iraunkor bat sustatzeko oinarritzko baliabidea da”.

Dokumentu osoa helbide honetan: www.euskaleskolapublikoa.eu

Aisialdia giltza! jardunaldiak Bilbon

“Bakearen bidean eta gatazka egoeretan, aisialdia giltza! jardunaldiak antolatu ditu Bizkaiko Urtxintxa Eskolak. Ekainaren 8an eta 9an izango dira Bilborock aretoan. Aldi berean, Arriagan, haur, gazte eta familientzako dinamizazioak antolatuko dituzte publiko zabalarentzat. Urtxintxak 25 urte bete ditu aurten eta hilabetez hilabete hainbat ekin-tza egin dituzte. Jardunaldiak hezkuntza-formalean eta ez-formalean interesa duen edonorentzat prestatu dira. Izena emateko epea, maiatzaren 21etik ekaina 1 bitartean izango da. www.urtxintxaeskola.org

SUA! karta-jolasa berria

Txatxilpurdi elkarteak karta-jolasa argitaratu du.

Miren Amurizak kokatu ditu XVII. mendearen hasierako udazkean Nafarroako mendialdean karta-jolaseko Mari, Inkisidorea, eta herritarra pertsonaiak. Sua! jolasa izateaz gain, eztabaidarako, azpijokorako, emoziorako eta abarerrako balio du. 10 urtetik gorakoentzat moldatuta dago, eta 8-24 jokalarientzako dago egokituia. Txatxilpurdi elkartearen eta ELKAR dendetan salgai, 10 eurotan.

Informazio gehiago nahi duenak helbide honetara jo dezake: kultura@txatxilpurdi.com

Euskadiko Eskola Kontseiluaren kezka



euskadiko eskola
kontseilua consejo
escolar de euskadi

Kezka handia agertu du Euskadiko Eskola Kontseiluak Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministerioak iragarritako neurrien aurrean.

Kaleratu duten prentsa-oharrean diotenez, “ez da adostasunik bilatu Autonomia Erkidegoekin, ezta ere Hezkuntza komunitatearekin”. Kontsei-

luaren iritziz, ordea, neurriek zein garrantzitsuak diren ikusirik, “komenigarria zatekeen”.

Hartu dituzten hainbat neurri egi-ten dio aipamena prentsa-oharrak: irakasleen lan-jarduna luzatzea proposatzen duenari, irakasle titularrak gaixotuz gero ikasleek 10 ikastegun ordezkorik

gabe igarotzea dagokionari, eta ikasgelako ikasle ratioari buruzkoari, besteak beste. Azkenik, derrigorreko hezkuntza ahuldu ordez indartu egin beharko litzatekeela azaldu du Eskola Kontseiluak, “ondorengo ikasketak behar adinako bermearekin jarraitzeko behar dituzten gaitasunak berdin barneratu ditzaten ikasle guztiek”. Oharrak jarraitzen du esten, “irakaskuntzari bere tokia eta ospea eman behar zaizkio, irakasleen prestakuntza eta langintza egokituz eta epe ertain-luzerako hezkuntza politikak diseinatuz hezkuntza komunitate osoa barne hartuko duten adostasun zabaletan”.

EHUko 2012ko uda ikastaroak

EHUko 2012ko Uda Ikastaroen eskaintza oso zabala da: ikastaroak eta mintegiak, kongresuak, eskolak, jardunaldi profesionalak, tailerrak... guztira 113. Horietatik 85 gaztelan dira, 18 euskaraz eta 10 ingelesez. Euskaraz eskaini diren ikastaroak hauexek dira:

- Gobernantza demokratikoa eta herritarren partaidetza politika publikoetan.
- Genero sistemetan sustraituta dagoen indarkeria: begirada bat gazteen errealitateari.
- Eskola hobeak denentzat.
- Azken aurkikuntza zientifiko-teknologikoak eskolari begira.
- Hezkuntza eleanitza aldaketa metodologikorako tresna.
- Bestelako mundu bati begira.
- Euskararen erabileraren bilakaera, egoera eta norabidea, datuen argitan.
- Auzoak, etxebizitzak eta arkitektura-ondarea biziberri-tzeko estrategiak.
- Herri aldizkarien fenomenoak
- 15 urte Interneten komunikatzen: ondo goaz?
- Atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasteko prestakuntza ikastaroa.

Horiez gain, 2 Mintegi, 4 Tailer eta Jardunaldi 1 izango dira.

2012ko HIK HASI Udako Topaketak



Uztailaren 3an, 4an eta 5ean izango dira XIII. hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak, Donostian.

Guztira 29 ikastaro eskaini dira. Zenbait ikastaro itxita edo ixtear daude honezkero, baina oraindik ere baduzue beste hainbatetan izena emateko aukera, kopuru mugatua izanik oraindik bete ez direlako edo partehartzaile mugarik ez dutelako. Beraz, horietan izena emateko garaiz zaude helbide honetan: www.hikhasi.com



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> Hik Hasi Euskal Heziketarako Egitasmoak *hik hasi* aldizkaria kaleratzen du duela 17 urtetik. Orain arte, beraz, hezkuntza eskolaren arloan jorratu du. Bidean egindako hausnarketaren ondorioz, eskolan egindako lan hezitzaileak etxean egindakoarekin bat joan behar duela ikusi zuen. Horregatik, proposamen hezitzaile berria kaleratu du: *Hazi Hezi*. Bal al du zentzurik, zure ustez, halako proposamenak?

>Zoragarria iruditu zait

Hazi Hezi aldizkaria ikastetxean ikusteko aukera izan dut eta zoragarria iruditu zait. Gai asko daude, adin desberdinetakoentzat gainera, eta agian gehiegi du irakurtzeko, baina hilabetekaria ez denez, bada denbora interesa izanez gero udan irakurtzeko. Nire aldetik zorionak egiten ari den lanarengatik. Animo eta eutsi goiari! *Luis Mendia*

>Zer pentsatua eman dit

Bai, zer pentsatua eman dit aldizkariak. Alde guztietan ezkortasunari garrantzia ematen ari zaionean halako ekarpena egiteak zer pentsatua ematen du, bai ala bai. Guraso naizen heinean, zure inguruan zerbait positiboa ikusteak zure odola garbitzen dela sentitzen duzu. Egoera txarrean ere, gauza ederrak egin daitezkeela sentitzeak barrua dirdirka jartzen dizu. Halako oparia egiteko gaitasuna izateak bihotza handitzen dizu. Bai, segi bide horretatik, pentsalari pentsarazle, edo hobeto esanda, ekimen handiko ekintzaileak! *Mirari Goikoetxea*

>Behar-beharrezkoa da

Hazi Hezi irakurri ondoren, ez badut guztia irakurri ere, halako aldizkari baten premia zegoela konturatu naiz. Behar-beharrezkoa da ulertzeko moduan jartzea eta gai bakoitzaren gauzarik inportanteenak jartzea, aldizkarian egiten den bezala. "Umearen loa" eztabaidan ez zela posizionamendurik hartzen pentsatu dut hasieran, baina eztabaida bada, ikuspegi desberdinak jartzea ongi dago. Hala ere, zer modu den egokiagoa agertuko duzue, ezta? Badakit pentsamendu desberdinak daudela, baina gauza batzuk beti dira beste batzuk baino hobeak. Esker mila egin duzuen aldizkariarengatik, zorte on eta urte askotarako izan dadila... *Maitte Uranga*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Hezkuntza egoeraren aurrean, zer proposatuko zenuke?

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoan harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Munduko ipuintxo bat gauero

Silvia Dubovoy
AIZKORRI

Zalantzarik gabe, ipuin polit bat entzuteko unerik egokiena ohera joan aurreko unea da. Kontinente bakoitzak, herrialde bakoitzak, baditu bere kulturari hainbat ipuin eta alegi. Liburuan, Afrika, Amerika, Asia eta Ozeania eta Europako batzuk aurkituko dituzu. Istorio horiek gurasoek kontatzea edo haurrek beraiek irakurtzea bizitzaren plazerrik handienetarikoa bat da. •



Marko panpinak trapuzko amets

Fernando Morillo/ Iban Izagirre
GAUMIN

Ilargi dama, eskuineko begi bat behar dut. - Baina baduzu begi bat -ohartarazi zion Ilargiak. Markok ez zekien txantxetan ari ote zitzaion. - Bai, baina begi bakar batez ez dut ondo ikusten! - adierazi zion Markok xuxurla eginez. Marko panpinak trapuzko bihotza du, eta ezker-begia, bihotz-begia. Baina sentitu ezin dituenak sentitzen dituela uste du. •




Nikolas

Txabi Arnal/ Patxi Gallego
GILTZA

Nikolas mutil afrikarra da ipuineko protagonista. Duela hilabete batzuk, bere herria utzi zuen, eta gurera etorri zen. Nikolas, altua, atletikoa, eta ebanoa bezain beltza da. Hala ere, ez da igeriketa-txapelduna, heroia baizik, benetako heroia.

Nire ipuin kutunak Tren urdina bildumako ipuin berria dugu haxe. 3 urtetik gorakoentzat. •



1512 Nafarroa, in memoriam

Juan Luis Landa
EREIN

Gerra... Hamar urte baino gehiagoz Nafarroa birrindu zuen eta erreinua behin betirako Gaztelara "atxiki" zuen gerra da eleberriaren oinarria. Egilea, Gaztelako erregeen interesen eta handinahiaren atzaparretan zegoen Nafar erreinuko herriaren lazeria eta zoritxarra erretratatzeko ahalegindu da irudi ederretan. •



Neure buruaren alde

Koldo Zuazo
ALBERDANIA

1574an, heriotza ate joka zeukala igarririk, eta bere bizian leporatu zizkioten salaketa zenbaiti aurre egin nahirik, gertatukoak idatziz jartzea erabaki zuen Martin Garaigordobil otxandioarrak. Gaztetxoa zela, Gasteiza joan zen lanera. Urrun ihes egin zuen, Kapitain bat hil zuelakoan. •



Larunbatean Bukowskin

John Andueza
ELKAR

Irailaren zazpian, Donostiako Birlintx institutuan ikasturte berria hasi da. Urtero legez, tribu ezberdinak nahastuko dira bertan: modernoak, frikiak, punkiak, hip-hoperoak eta apatxe baktaria.

Nerabe horien unibertso propioan murgilduko gara. Institutuan norbaitek kamera txiki bat ezkutatu du nesken aldagelako azken dutxan... •

... nora joango gara?

PILOTARI IKUS GUNEA, pilotakadaz pilotakada eraikitako historia

Zein haurrek ez du pilota bat izan esku artean? Zenbat ote dira pilotalekurik ez duten herriak, herriko txokorik onenean, gainera?

Jolasteko edo jokatzeko, pilotalekua eta pilota izan dira euskaldunok izan ditugun bitarteko garrantzitsuenetakoak. Zenbat ote dakigu, ordea, pilotaz eta pilota-jokoz, euskal kirol horretaz? Eta zenbat, pilotarekin jolasteko tresnez, araez, ohi-turez? Nork eta noiz asmatu ote zituen pilotarekin aritzeko tresna horiek? Eta zenbat ote dakigu pilotak izan dituen eta gaur egun dituen jokalariei buruz?

Galdera horien eta gehiagoren erantzuna aurki daiteke Senpereko (Lapurdi) Pilotari Ikus Gunean.

Izan ere, hantxe dago Euskal Herrian eta Frantzian dagoen pilotaren museo bakarra.

Ez da kasualitatea Senpereko herriak pilotari museo bat eskaintzea. Senperen, hain zuzen, lau pilota-plaza, bi trinket eta ezkerpareta bat baitaude. Pilotaleku horietako batean arituak dira 200 pilotari lizentziadun senperrak; horietako asko munduko txapel-dun izan direnak, gainera.

Pilotariez eta pilotalekuez gain, Senperetik badu pilotarekin lotzen duen beste gertakari bat ere: senperrak zen Jean Dithurbide, Gantxiki, xisteraren asmatzailea.

Gantxikik 13 urte zituen, 1857ko egun batean Donamartia izeneko bere



etxeke gela batean gereziak, ilarrak eta abar biltzeko erabiltzen zuten zumezko kapazua hartzea bururatu zitzaionean. Zer egingo, eta harekin pilotan hasi zen. Horra hor lehen xistera: haurraren irudimenetik ateratako pilotan aritzeko tresna.

Donamartia etxeak zutik jarraitzen du Senpereko herrigunetik pare bat kilometrora. Hala ere, 2009an Pilotari Ikus Gunea sortu zutenetik, ez dago haraino joan beharrik etxe haren barruan zer gertatu zen jakiteko. Izan ere, Senpereko herrian bertan dagoen Pilota Plazako turismo-bulegoan bertan, pilotaren museoa atondu zuten. Bulego-ko horma batean dago margotuta Do-

namartiako etxe aurrea. Han dagoen atletik sartu, eta zuzenean euskal etxe bateko sukaldean sartuko da bisitaria. Han, leihotik bestaldera, pilota-partida bat ikusiko du plaza batean. Berehala, bideo bat agertuko da leiho horretan, irudi zaharrek.

Horixe da museoak dituen lau aretoetatik lehenengoa, etxeke sukalde. Gela horretan, Jean Dithurbidek asmatu zituen xisterak nola egiten diren ikus daiteke, bertako hormetan. Aretoa pilotaren gaineko jakintzari eskaintzen zaio: nola sortu zen, pilotarako tresnak nola egiten diren, eta abar.

Soinuek eta argiek gidatuko dute bisitaria, areto batetik bestera. Ate gai-



nean argiak pizten direnean, bigarren aretora joateko tenorea izango da. Bat-batean, trinket bateko pasabide ilun batean murgilduko da bisitaria, pilotariek egiten duten bide bera eginez, pilotakaden soinua lagun duela. Bidean topatuko dituen telebistetan eta bideo-pantaila handi batean, aukera ederra izango du hainbat partida eta pilotaren berezitasunak ikusteko.

Azkenik, laugarren aretoan, oroi-menaren eta ondarearen gelako argibide-tauletan, pilotaren inguruko hainbat objektu ikusi eta ezagutu ahal izango ditu, erakusketa baten bidez. Handik pilotalekura irtengo da zuzenean bisitaria: ikasitakoak praktikan jartzeko aukera bikaina! •

PILOTARI IKUS GUNEA

Pilota Plaza, Senpereko turismo-bulegoa

64310 SENPERE

Tel.: (33) (0) 5 59 54 11 69

tourisme.stpee64@orange.fr

www.saint-pee-sur-nivelle.com



LEKUA

Senperen bertan, Pilota Plazaren ondoan dagoen turismo-bulegoan dago pilotaren museoa.

ORDUTEGIA

Irailetik ekainera:

Astelehenetik ostiralera:

9:00etatik 11:30era

14:00etatik 17:00etara

Larunbatetan:

9:30etik 11:30era

Uztailetik abuztura:

Astelehenetik larunbatetara:

9:30etik 11:30era

14:00etatik 18:00etara

Igande eta jaiegunetan:

9:30etik 11:30era

BISITAK

Bisita gidatuak eskaintzen dituzte, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, 8 urtetik gorako haurrentzat. Bisita horietan parte hartzeko, izena eman behar da aurrez; eta taldeak, gutxienez, 20 lagunekoa izan behar du.

Bisitak 45 minututik ordubetera iraungo du.

SARRERA

	Banakoentzat	Taldeentzat
Helduak:	5 euro	2,50 euro
Haurrak:	2,50 euro	2 euro

12 urtetik beherakoentzat sarrera doan.



atzeko atetik



Antxiñe MENDIZABAL ARANBURU

EDITOREA ETA IDAZLEA

Urretxuko Lourdesko Ama ikastola izan zen nire aurreneko eskola, duela berrogei urte pasatxo. Eta garaiak kontuan hartuta, esatea daukat eskola berritzaile batean ibilitakoa naizela: euskaraz eginiko testu-liburuak izan genituen; euskal literatura ezagutu eta bertsotan trebatu ginen; gure historia eta kulturaren berri jaso genuen; Euskal Herriko mapa fisikoa eta politikoa marrazten genuen ia egunero –nik neuk Euskal Herria urez inguratutako uhartea bat zela irudikatzeraino–; euskal kantagintzaren erreperitorio osoa ikasi genuen; ordura arte mutilentzat bakarrik ziren kirolean zaildu ginen neskek; elastiko zuri-berde-gorria estreinatu genuen; antzerkia egin genuen;

Txotxekin eraikitako mundu berriak

dantza talde bat eta abesbatza bat osatu genituen, euskaraz alfabetatu ginen... Heziketa guztiz berria eta berritzailea, zalantzarik gabe.

Lastima, ez gara sexu-heziketa jaso zuten belaunaldikoak izan!

Atzera begira, ordea, eskola garai-ko oroitzapen bat daukat batez ere nik gogoan: hiruzpalau urte nituenekoa izango da, ume tropa handi bat, ni tartean, lurrean eserita denbora luzean txotxekin jolasten ginen. Orduan, orain bezala, txotxekin letrak osatzen saiatzen nintzen ni. Beste batzuek kamioiak eraikiko zituzten, edo etxeak, edo espazio-ontziak; baten batek izango zuen ilaran jarri eta txotxak zenbartzeko joera; leihotik begira denborapasa egongo zenik ez zen faltako, edo aldamenekoa zirikatzen, eta baita baloiari ostiko batzuek emateko kalera irtekeo amorratzen ere. Guztiok genuen lekua gela hartan.

Urteak ez dira alferrik igaro, eta txotxa-saio haiek hasi dira beren fruituak ematen; gauegun, letrakosatzeaz gain, ipuinak idazteko gauza ere banaiz.

Gure seme-alabak Urretxu-Zumarragako ikastolara joaten dira gaur egun, ni ibilitako eraikin berera, futbolzelai berean jostatzen dira, eta euren andereño batzuk nireak izandakoak dira. Eta nik ez diot eskola berritzaile bati uko egin.

Horregatik pentsatzen dut edozein heziketa lanarekin batera, haurrari hazten lagunduko dion eskola lehenetsi behar dugula. Hazteak geure buruaz eta munduaz dugun irudia gorpuztea, forma ematea, eraikitzea eskatzen du. Sormen ariketa horretan trebatzeko haurrak garatu beharko ditu baliabideak, gaitasunak eta kompetenziak. Baina, gainera, ezinbestean landu beharko du irudimena.

Irudimena gure errealitatetik abiatuta, mundu berriak sortzeko gaitasuna dela dio hiztegiak. Eta nik esango nuke gure mundua birsortzeko premia handia dugula.

Hori dela eta, ikastolak, akaso, beraztertu beharko luke adin guztietako ikasleak lurrean eserita jarri, eta irudimenari bide emanez, txotxekin jostatzeko denbora hartzea.

Tigre helikopteroak erosteko 1.353 milioi euro jarriko ditu Espainiako Gobernuak; hezkuntza arloan egin nahi dituen murrizketen ia erdia da hori.

Talde antimilitaristak

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian
ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria

ihesi.com



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa


Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

argia
proiektua



txantxariak

EUSKAL JOLASEN BILDUMA (4)



txantxariak
EUSKAL JOLASEN BILDUMA (4)



- + DVD bat jolasak ulertzeko antzezpenekin eta Txantxarien abenturak
- + CD bat jolasen abestekin
- + Liburuxka bat jolasen azalpenak eta abestien letrekin

Eskaerak 943 27 00 33 edo www.aisia.net